


Margo tatae berria, herriko margolarien topagune

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko urtarrilak 15

176. zenb.



S.F.X. Ikastola-Udala
Hitzarmena
oraindik
sinatu gabe

Javier Abalde

Errepide planari buruz

Baztargain azpikue (Uribarri)

Dionisio Pagaldai Leibar, Rosario Urrutia Galdos Gellako Iturbenekue eta euren semie, Juan Luis, die gaur bertako bizilagun.

Etxe honetako Pagaldai apellidue oin 103 urte dala Golibarreko Olabenetik etorrixe da. Dionisioaren aittejaune izen zan bertako Luisa Elkoroberezibarrek ezkondu zana.

Etxe hau, inguruetakoa beste asko moduen, oin 25 urte diela eurengeantutekue da. Erosi aurretik Hierrona zan.

Azken gerra denboran asko kastigatuteko lekue izen zan hau, frentie bertan egon zalako hilabetietan geldi. Alde batetik Santa Barba-



rik botatako tiruek eta bestal-detik botatako bonbak etxie guztiz hondatuta itxi euen. Behin, sukaldien 12 lagun euzela, 3 bonba etxe barrure sartu zien eta batek be erre-bentau ez.

Gerra ostien Dionisiok 12 urtetik 17rainokuek artzai pasau zittuen Degurixen, Muxibarrekuekin batera.

Geroztik fabriketan bota dittu 40 urte inguru langile lanien. Halan da guztiz be,

horrekin batera baserriko lanai eutsin dutso.

Azkenengo aldiz garixek oin 27 urte dala erain zittuen.

Gaztaña lekue izan eta da, gaur be 100 gaztaña landare-tik gora jarritte dauko ta.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Zer egin industriaren gainbeheraren aurrean

Dagoeneko bagenekiena eman da egun hauetan argitara: Arrasateko Eskualdeko industria apurka apurka gainbehera doala. Bertako enpresa metalurgiko sinbolikoenak odolusten ari dira, eta ez da irtenbide alternatiborik antzematen. Bere garaian us-tezko salbatzaile profesionalen eskuetan utzita, kapital propioaren konpromezurik gabe eta baliapide publikoen kontura, heriotza industriaren *urkamendi* eraman dute horiek. Betikoa da.

Erreflotazio lana zaila zen, baina ez da logikoa hartu duten eronkari erantzun zentzuko bat emateko gai izan ez direnek eurek, operazioa espekulazio urbanistikoaren baliapide errazaz konpondu nahi izatea. Horretarako aski ginen geu.

Baina arazoa sakonagoa da, izan ere, gestore horien etorreratik gutxi itxaron bazitekeen ere, gizarteko beste talde batzuk ere ez dute indarrik azaltzen sare industrial eta etorkizuneko iharduerakin ordezkatu eta birsortzeko. Kooperatibetako plan estrategikoak ere postuen galera nabarmenkin egiten dira. Euren gestioa asko zorrotz eta enpresa berriak sortu beharko dituzte, nazioarteko kompetitibitate mailaren bila ibiltzearen ondoriozko lanpostu galera konpentsatzeko.

Klase enpresarialaren eta gizarteko baloreen krisian gaude. Arrasaten, motibazio ideologikoz eta komunitate lokalarekiko konpromenez eraginda sortutako kooperatiben mugimendua, baina gaur

egun indarrean dauden baloreen bestelakoak dira, eta horien arabera diseinatu beharko dira irtenbide alternatiboak, formula kooperatiboa ez baita aukera konpentsatzailea izango erakarpen sozialik ez badu.

Eta hala ere, ekimendun taldearen sorrera potentzialerako baldintza ezinobeak ditugu Arrasaten, Eskola Politeknikoa-Ikerlan-Saiolan-Alecop sarearen bitartez.

Ekimendun gazteek laguntzak eta erraztasunak behar dituzte lokal, zerbitzu eta bitarteko finantziarioen kostu berezietan, eta nekez lortuko dute halakorik harreman zuzenean, eskualdearen berrindustrializazio-estrategian lider izateko diseinatutako eskualdeko enteen bitartekaritzaz ez bada. Garapen Estrategikorako Unitate bat faltan botatzen da Arrasaten, Arrasate eta eskualderako, —SPRIekin loturik—, gizartearen dinamizaziorako politika ezarri, eta helburuak eta estrategiak jartzeaz arduratu, lursailen erabilpen sozial eta logikoa bideratu, ofiziko espekulatzaleei kontzesiorik egin gabe, Zerrajerako zoru librean Garapen Teknologikorako gunea bultzatuko duena; finantza baliapideak teknologia berrien eta gestioko teknika modernoetan trebatzeraren bultzatzeko gestionatuko dituen unitate bat, finean.

Arrasate eta eskualdea, bere historia industrialeko eronkarik handienaren aurrean gaude, eta orain 35 urte mobilizazio sozialerako formula bat aurkitzen asmatu bazen, mugimendu berri bat erditu beharrean aurkitzen gara gaur, datorren mendeari aurre egiteko gai izango den mugimendua.

JESUS LARRAÑA
(Erredakzioan
itzulita)



PAXKU

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKÓ (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udako Inguurigo Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunak.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**



**ARAMAIO
okindegia**


Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jasotzen du



ZENBAKI
Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39



**ITURRIOTZ
taberna**

**Girorik
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

••••

**Pakea, pakia
ala pakie
(zuzena bada
hobie)**

Abenduak 15eko Egunkarian Josemari Velez de Mendizabal idazleak bere ohizko zutabearen idatzi zuen artikuluak ("Urrun dago munduko amaiera") zer pentsatua eragin dit, eta eztabaida ekar dezakeelakoan nago. Eta ez naiz artikuluan esaten duenaz ari, formaz baino.

Agian diskutigarri litzateke ea komenigarria den E. H. osorako den egunkari batean norbere herriko euskaran idaztea ala ez, baina horretan ez naiz sartuko. Bestalde, herri mailako argitarapenetan bai ikusten dudala interesgarri eta bidezko bertako euskaran idaztea. ARRASATE PRESS hasieratik saiatu izan da horretan eta orain ere, askori txikiegi irudituko zaion arren, bere ahalegintxo egiten ari da. Baina idaztea ez da berba egitea bezain erraza (neuri ere, bidebatez esateko, errazago zait idazkitxo hau batuan eskribidutea). Gainera, hizkera estandarrean (batuan) badago nolabaiteko tradizioa, Mondragoeko hizkeran ez daukaguna.

Arau falta nabarmena dugu, beraz. Eta horixe berori ikusten dut goian aipaturiko artikuluan. Arretaz irakurritz gero, nahasmen

izugarria soma daiteke, batez ere bokal elkarketen gurutzapenei ("aldaketa eufonikoak" deitzen zituen Bonaparte erregegaiak) dagokienean: alde batetik *nauenean*, *otsokumeak*, bestetik *bakien*, *abadiak*, eta baita *utopiazaliak* ere (*e + a*-ren hiru burutzapen, hortaz: *ea*, *ie*, *ia*). Era berean: *ikaragarrixe*, *kezkarrixe*, baiña *gutzixak*, *iheslarixak* eta baita *gorriak*, *irudiak* ere. etab. etab. Bestalde, *jatazan*, *najaukan* eta horrelako adizkiak arrotzak iruditzen zaizkit Arrasateko euskaran, lexiko arloko *gabe* modukoak legez.

"Hitzez hitz aldatu ditut hona, lagun dudan Xabier Mendiagak azaldutakoa" dio bukaeran Josemarik. Nekez imajina daiteke delako Mendiaga hori (irudimenezko zein haragizko gizaki izan) hainbeste polimorfismoz berba egiten.

Kritikatxo honekin beste honetara ailegatu gura dut: herriko hizkeran idazteko irizpideak behar ditugu.

Jakin badakit duela urtebete edo Juan Martin (Elexpuru, nor bestela?) gure bailarako euskaran idazteko gutxienezko irizpide-bateratasuna lortzeko ahaleginetan aritu zela, txosten bat idatzi eta bilera batetara deituz. Berriki aitortu didanez, deiak ez ei zuen erantzun baikorregirik izan...

Behingoan zezenari adarretatik (okerrak izanagatik ere) oratu behar diogulakoan nago...

TXIPI ORMAETXEA

••••

**Bideak, obrak
eta oinezkoak**

Aspaldi hontan, Arrasate aldean hainbat obra egiten dabitza eta, behintzat, behar dan bezala bukatzea eskatuko neuke.

Badaz bi puntu azpimarratu gura nittuzkeenak, bertatik sarritan pasatzen naitzela, hartaz konturatute.

Bat, Garagartzara bidaiari dagoen Markuleteko industrialderako sarrerarena da. Bi sarrera daz eta bata bez bukatuta. Uste dot badala garaia hori betirako konpontzeko. Gainera, oin dauen bezala, oso puntu arriskutsua da.

Bestetik, eta aurrekoari jarraituz, oinezkoen egoera ere arduratzeko modukoa dala uste dot. Jende asko ibiltzen da Arrasatek Garagartzara bidean, eta sarri norberaren burua arriskuan jarriz, kotxeen abiadaren erruz eta oinezkoentzat ganoezko bide baten faltaz.

Ia norbait gogoratzen dan eginbeharreko horreik behar dan bezala bukatzen.

U. B.



FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**Basabe
jatetxea**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

Zer moduz urtarrileko aldapa?



Gema Carrascal
(20 urte)
ETEoko ikaslea

Nik ez dut gehiegi igarzen. Ez dakit, hori gurasoek eta gehiago igarriko dute, diruz sekula ondo ibiltzen ez naizenez, nik ez dut igarzen.



Roberto Vicente
(19 urte)
Gelmako langilea

Gaizki, oso gaizki. Krisia igarzen da, urteari gaizki ekin diot eta uste dut hilabete osoan eta bizitza osoan gaizki ibiliko naizela.




Marian Izquierdo
(26 urte)
Umezaina

Oso gogorra. Ez daukat xentimorik, ia kobratutako guztia gastatu dut. Beste urte batzuetan, antzera kobratuta gaurko egunez zerbait neukan, baina aurren ezer ere ez.



Jabier Arizabaleta
(59 urte)
Jubilatua

Beti kostatzen da zerbait, jubilatuta nago eta diru gutxiarekin, gauzak mermau egiten direnean... Dena dela, urtea ondo hasi dut eta ea horrela bukatzen dudan.



Luis Mari Arana
(46 urte)
Gelmako langilea

Niretzat beti bezalakoa da, aldapa hileroko kontua da, ez urtarrilekoa bakarrik.



Nuria Arroiabe
(26 urte)
Itzultzailea

Egia esan, ez diot larregi igarri. Lanean bai, igarri diot eta uste dut jendearengan eragina izan duela, jendea beldurrez dagoela uste dut.



Miren Maite Alberdi
(32 urte)
Ospitaleko langilea

Aldapa beti igarzen da, baina aurrez pentsatuz gero, aurre egiteko prest egon daiteke... beno, nahiko ondo, esango nuke.



Paco Sanchez
(24 urte)
Igeltseroa

Beste urte batzuetan bezala, lana berdin egiten dut eta kobratu ere bai, ez dut apartekorik igarri.

ESKAINNTZA

Betaurrekoak
2.500 PTatik aurrera!



GARAGORRI
OPTIKOAK

Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualdorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
Udaltzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterongo liburutegia	
Monterron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15	
Eguez: Amezua. Santamaina.	
Gauz: Estella. Matxiategi.	
Larunbata 16	
Eguez: Ruiz. Maala.	
Gauz: Ruiz. Maala.	
Igandea 17	
Eguez: Morales. San Andres.	
Gauz: Morales. San Andres.	
Astelehena 18	
Eguez: Azkoaga. Ferrerías.	
Gauz: Azkoaga. Ferrerías.	
Asteartea 19	
Eguez: Español. Iturriotz.	
Gauz: Español. Iturriotz.	
Asteazkena 20	
Eguez: Corcuera. Musakola.	
Gauz: Corcuera. Musakola.	
Osteguna 21	
Eguez: Inzar. Erguin.	
Gauz: Inzar. Erguin.	

15 OSTIRALA

ZINEA

"La marrana" (7,10)

BLUES KONTZERTUA

"Fastuosos de la ribera" taldearekin blues kontzertua. Gaueko 11etan. Elorrioko Arriola Kultur Aretuan.

SANTAMAS ARGAZKI LEHIAKETA: SARIAK, ERAKUSKETA

Santamas argazki lehiaketako sari banaketa. Harresi aretoan, arratsaldeko 7etan. Ondoren lanekin erakusketaren inaugurazioa.

16 LARUNBATA

ZINEA

"Fer Gully" (5etan)
"La marrana" (5,7.30,10)

EUSKAL HIZKUNTZALARI-TZAREN INGURUKO IHARDUNALDIAK

"Hitz-elkarketa: sailkapena (I)" hitzaldia. Emalea: Miren Azkarate. Goizeko 9.30etan. Bergarako UNEDen.

17 IGANDEA

ZINEA

"Fer Gully" (12etan)
"El último Mohicano" (5,7.30,10)

MENDIKO IRTEERA

Aloña-Butrehaitz-Akaintzera mendiko irteera. Goizeko 9etan Aretxabaletako Partenoitik. Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatuta.

OMENALDIA

Aretxabaletan Juan Arregiri omenaldia. Eguerdiko 12etan ongietorria eta meza. Eguerdiko 2etan Uratz-Alden bazkaria.

JUAN ARREGIRI OMENALDIA

Datorren igandean omenaldia egingo zaio Aretxabaletan Juan Arregi herri semeari. Juan Arregi aretxabaltarra U.D.A., Abesbatza, Ikastola, Basotxo... eta antzeko elkarteekin oso lotuta egon da eta hori dela eta merezitako omenaldi hau eskainiko diote. Eguerdiko 12etan ongietorria egingo zaio eta ondoren meza, bertan Aretxabaletako Abesbatzak parte hartuko duelarik. Intsignia bat eman ondoren, eguerdiko 2etan Uratz-Alden bazkaria izango da.

GOIKOBALU ETA CONCENTO MUSIKAL-EN ZINTA

Goikobalu abesbatzak, Concento Musical taldearen laguntzaz, bere lehen zinta grabatu du, Telemaren *Don Quijote* eta Vivaldiren *Gloria* lanekin. Zinta zuzenean grabatu da, Arrasate, Oñati eta Donostian egindako kontzertuetan. Aipatutako zinta Gorabehera, Naroki, Hire eta Eya dendetan eros daiteke, 1.000 PTAgatik, edo bestela Goikobalu abesbatzeko edozein partaideri eskatuta. Zinta alde batera utzita, Gabonetako atsedendarien ondoren, Goikobalukoak

berriz hasiko dira entsaioetan, beti bezala ostegunetan arratsaldeko 8.30etan, Gazteluondo ikastolan. Kantatzea atsegin duen edozein arrasatear ondo hartua izango da, beraz nahi duenak badaki ostegunetan nora agertu.

HARATUZTEAK 93ko KARTEL LEHIAKETA

1993ko haratuzteak iragarriko dituen kartel lehiaketa zabalik dago. Arrasateko edozein pertsonak har dezake parte; teknika librea izango da eta lanak datorren urtarrilaren 21 baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Kultura Departamentuan. Epaimahaian Alkatea, kultura eta kiroleko batzordeburua, SUDC batzordeko ordezkaria, kuadrilen batzordeko ordezkaria eta marrazki eta pintura ikastaroko irakaslea egongo dira. Kartel irabazlea zein den urtarrilaren 23an emango da ezagutzera eta, hala erabakitzen bada, erakusketak ere zabalduko da.



18 ASTELEHENA**ZINEA**

"El último Mohicano" (7,10)

ESKULANEN IKASTAROA

Estainua eta pintura rustikoaren ikastaroaren hasiera. Irakaslea: Mila Akizu. Arratsaldeko 3.30etan AEDn. EKIN emakume taldeak antolatuta.

EKIN EMAKUME TALDEKO BI IKASTARO

18an hasiko da AEDn EKIN emakume taldeak antolaturiko eskulanen ikastaroa. Eztainua, pintura rustikoa eta beste eskulan batzuk erakutsiko dira. 3.30etan hasiko da eta 15 asteleheneretan emango da. Emalea Mila Akizu izango da. Bestalde, otsailaren 2an "Psikologiko, afektibo, sozial" ikastaroa hasiko da emakume langabetuentzat. Autoestima, gizarteko zeregina eta harremanak baloratzen ikasiko da. Asteartero izango da eta 8 saio izango dira. Emalea Amaia Vazquez izango da.

**19 ASTEARTEA****ZINEA**

"El último Mohicano" (7,10)

ARRAZAKERIARI BURUZKO HITZALDIA

Arrazakeriaren sustraiak izeneko hitzaldia. Hizlariak: Luis Guridi, EHUko irakaslea eta Jose Mari Sánchez Carrión idazlea. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

**"EL ULTIMO MOHICANO" FILMA**

Ingeles eta Frantsez ejerzitoen arteko gerrarekin hasten den pelikula honetan abentura, maitasuna, mendekua... nahasten dira. Daniel Day Lewis, "Mi pie izquierdo" pelikularekin Oskar bat irabazi ondoren, berriz ere primerako interpretazioan ikus dezakegu. Hawkeye, mohikanoen artean hazitako gizona dugu eta Cora Munro britaniar ofizial baten alaba. Bien artean sortuko den maitasuna bakoitzaren ideologia bera baino indartsuagoa izango da.

20 ASTEAZKENA**ARRAZAKERIARI BURUZKO HITZALDIA**


Datorren asteartean arrazakeria "Arazoari sustraiak" izeneko hitzaldia izango da Monterronen. Hizlariak Euskal Herriko Luis Guridi Unibertsitateko irakaslea eta Jose Maria Sánchez Carrión 'Txepetx' idazlea izango dira. AEDk antolatzen du eta arratsaldeko 7etan izango da.

"TXEPETX" EN TEORIA SOZIALARI BURUZKO BI IKASTARO

Eskoriatzako Irakasle Eskolako "Adorez eta etseginez mintegiak", hizkuntzen berreskurapenerako "Txepetx" en teoria sozialari buruzko ikastaroak antolatu ditu. Lehen ikastaroa, "Hizkuntzen berreskurapenerako Txepetx en teoria soziala" izeneko, Julen Arexola-Leibak emango du eta "Hizkuntza eta lurra" izeneko ikastaroa Jose Maria Sánchez Carriónek. Zarauzko Monte Albertian izango dira klaseak honako egunotan: urtarrilak 30-31, otsailak 27-28, martxoak 27-28, apirilak 24-25 eta maiatzak 29-30. Lehen ikastaroaren matrikula 50.000 PTAKoa da eta bigarrena 60.000 PTAKoa. Ikasle kopurua muga-

21 OSTEAGUNA**HARATUZTEAK 93KO KARTEL LEHIAKETA**

Haratuzteetako kartel lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna. Arrasateko Udaleko Kultura Departamentuan entregatu.

**ENERGIA NUKLEARRARI BURUZKO HITZALDIA**

Eguzki taldeak datorren urtarrilaren 22rako "Energia nuklearra eta Chernobil" izeneko hitzaldia aurkezte du. Monterronen arratsaldeko 7etan hasiko den hitzaldian, Manu Azkarate, Chernobil en gondakoa izango da hizlaria.



Julen Arexola-Leiba

“Soldadutza ‘puta’ batengatik zazpi urteko desterrua larregi da (pentsatzen jarrita, ez dakit urtebeteko kartzela ez nuen nahiago), batez ere 10 urte baino gehiago kanpoan daramatzadanean. Itzuli egin nahi dut, beste askok bezala, izan ere gure lurra eta gure herria maitatu egiten ditugu eta herrimina sentitzen dugu”.

Fernando Galdos 1992-12-8

egin

“Ez diot Urte Berriari egunonik eman nahi zezen korridetako torturak salatu barik. Zezenketa, bizitzarenganako errespetorik ezaren adierazle argia da, izaki bizidun baten minaren eta sufrimenduaren aurrean sentsibilitaterik ezaren adierazle. (...) Nekez lortuko dugu mundu baketsu, aurreratu eta justiziazko bat, herri batek animalia baten sufrimendu eta torturaz gozaten duen artean. (...) Bestela zezena desagertu egingo litzatekeela esaten dute baina ez da hala, eta bestalde, munduak ez luke galera horrekin negarrik egingo, izan ere, animalia batzuk publikoki heriotzera arte torturatzeko bakar bakarrik hazteari utzi diotela jakitea oso pozgarria da”.

Klara Elkorobarrutia 1992-12-30

egin

Inkesta batek dioenez, “gazteak post-materialista handienak dira, kultura eta astialdiko bidaiak, kirola etabarrak gehiago baloratzen dituztelarik. Lanak berez duen balioari garrantzia kendu egiten diote. (...) “gazteek gehien estimatzen duten enpresa mota kogestioa eta kooperatiba sistema da. (...) Gure kooperatibetako sistemak ‘langile bat, botu bat, demokrazia erabiltzeko ahalmena ematen digu eta botu hori garrantzizkoa da gazteentzat. (...) “gure gazteak nere ustez eta datuen arabera, ez daude ‘alperrik galduta’ eta prest daude kooperatibismoarekin jarraitzeko, baina horretarako aukerak eman beharko dizkiegu erabakietan parte hartzeko, beraien aportazioak beti ere kontutan izanik”.

Mikel Lezamizek

TU lankide

Beherapenak, tentazioa

Azken urteotan bezala, aldapaz gain, urtarilak merkealdiak ekarri dizkigu. Eta merkealdiek, zer esanik ez, erosteko grina sortarazten dute gehienongan.

Etetik irten gabe, komunikabideek “merkealdiak”, “beherapenak”, “deskontuak” eta antzeko hitz nahiz irudi erakargarriak bonbardeatzen gaituzte.

Etxeko atarian, egindako “txolloak” kontatzen dizkigu auzokide batek, eta bere koñatuarenak, e. a. (Guk ez dugu ezeren beharrik, ez zaigu gastatzea komeni...) Buzoia zabaldu eta “Merkealdiak!” “Salneurri bereziak!”

Buelta bat emateko asmoz kalera irten eta eskapate guztietan, fosforitotan gainera, hitz magikoa: **MERKEALDIK** (beno, alkondara hura berriro ikustera sartuko naiz, ikustera bakarrik...).

Egia esan, zaila zaigu beherapenei bizkarra ematea; eta askotan garai honetan erositakoak ez gaitu asetzen: kalitate eskasa, erosketaren beharrik eza... zenbaki gorriak ahaztu gabe.

Hori dela eta, Kontsumitzaileen Elkarrekin merkealdietan erosteko zenbait aholku ematen dizkigute:

- 1- Zerbait erosten duzunean, tiketa eskatu.
- 2- Ez erosi etiketarik ez duen salgaiarik.
- 3- Erosketak egin ondorengo garantiak eskatu.
- 4- Gogoan izan normalki kreditu txartelak onartzen dituzten denek merkealdi garaian ere onartu egin behar dituztela.
- 5- Bidezkoa ez den zerbait ikusiz gero, Autonomi Elkarteko Kontsumo Zerbitzura, Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegora edo Kontsumitzaileen Elkartera jo dezakezu.



Txaro Jauregi

Deba Garaiko Kontsumitzaileen Elkartekoa




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Gurutze Gorriaren iazko datuak

Deba Garaiko Gurutze Gorriak, istripu desberdinetan zauritutako 658 pertsona trasladatu zituen iaz, horietatik 475k ez zuten zauri handirik izan, 156 larri zauritu ziren eta gainontzeko 27 lagunak hil egin ziren. Ia urtero moduan istripuen eragile nagusia errepeidea izan zen, trafiko istripuak 57 izan baitziren; ondoren lan eta kirol istripuak izan ziren.



Errege kabalgata

Errege Kabalgatak ez zuen hutsik egin eta urtero bezala, hilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar herriko kaleetan zehar ibili ziren, beste 150 pertsonen laguntzarekin. Azken urteotan parroki-taldeek antolatzen duten ekintza, aurrez pentsatu bezala burutu zen, eta hiru erregeek ikusmen ikaragarria sortu zuten.

Txikilandian iaz baino jende gutxiago

Guztira 2.100 pertsona izan dira aurtengo Txikilandian, eta horietatik, 130 egunero joan dira, saldutako bonoak horiek izan baitira. Jende-kopurua iazkoa baino txikiagoa izan da. Txikilandia zabalik izan den lau egunetan, AEDko aisialdi taldeko 13 begirale izan dira bertan, eta baita Besaide Mendizale Taldeko beste bi eta Igeri Taldeko lau ere, rokodromoa eta ur-jolasak

IMI zentrua itxi

Zortzi urte zabalik izan ondoren, 1993a iristearekin batera IMI zentruak atek itxi egin zituen. Udalak berez bazuen interesik IMI programari aurrerabidea emateko, baina IMI programa amaitutzat eman du Jaurlaritzak. Udalak Monterronen antzerako zerbitzua zabaltzeko asmoa dauka, eta monitore kontratatzeko baldintzak argitaratu ditu.

egin direnerako.

Bestalde, kaleetan zehar ibili den tren 800 lagunek erabili dute, bueltako 100 PTA ordainduta.

Sindikatuaren erakusketa

ESK, LAB eta CCOOK antolatuta, UCEM-eko historiari buruzko erakusketa egon da ikusgai Monterronen. Erakusketa UCEM-eko argazki eta dokumentu zaharrez osatu da, lantegiaren desmantelamendua eta langileen borrokak erakutsiz. Erakusketarekin batera

bideo bat ikusteko aukera izan da; UCEM-eko desmantelamendua aurkako sinadura bilketa eta aldizkariaren salmenta ere egin dira.

Zozketen berri

San Andres Herri Eskolako zozketa: 922 zkia. Egunkariako autoaren zozketa: 300.685 zenbakia. Amnistiaren aldeko Batzordeko txekorraren zozketa: 6.372 zenbakia. Jai-Zaleko zozketa: lehen saria 466 zenbakia eta bigarrena 890 zenbakia. Musika talde bat sortze-

ko errifa: 1.225 zenbakia. Saria jasotzeko 15 egun baino lehenago Arrasate Pressetik pasa.

Uharkapen ez dago bakerik

Uharkapeko auziak ez du bukaerarik. Abenduan bazirudien Udalak eta Azatzakoek arazo amaitutzat emango zutela, 250 milioitako abal baten bidez.

Orain Azatzako bizilagunek beste ohar bat kaleratu dute, Uharkapeko horma egitearekin ados ez daudela esanez, etxeetako kalteak aurrez konpontzen ez badira behintzat.

JAIOTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Andoni Garcia Hermosel. Abenduaren 24ean. • Jon Hernandez Delgado, 28an. • Ane Gallastegi Loiti, 31n. • Leire Fernandez Soriano. Urtarrilaren 1ean. • Oihana Aranbarri Duque, 6an. • Garazi Uriarte Conde, 11n.
EZKONTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Antonio Tena Sanz & Ines Garcia Medrano. Abenduaren 6an. Elizaz. • Juventino Luis Marcos Sanchez & Ma Dolores Jorge Romero, 9an. Elizaz.
HILDAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Teodora Bengoa Agiriano. Abenduaren 25ean. 88 urte. • Manuel Tamame Juan, 26an. 81 urte. • Clemente Senar Larraza, 30ean. 86 urte. • Maria Bernas Zumelaga. Urtarrilaren 3an. 82 urte. • Antonio Fernandez Perez, 6an. 68 urte. • Alejandra Ojanguren Badiola, 7an. 84 urte. • Victor Lazpiur Ganboa, 8an. 77 urte.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



KONTXU MONARRAIZ *

Urtarrileko aldapa

Hitz horrek etxeoandreak nahigabeak ekonomi mailan izaten dituen adierazten ditu. Inprobisazioaren ondorioak.

Eta guk, Lagun-Bidetik, baikortasun mezua bidali nahi diegu etxeoandre guztiei.

Gastu jakinak eta prebizioak osatuz, hilaren bukaraino nahi badugu lasai iritsi, ezin bestekoa da aurpegia emate arazoari.

Ez dago beste erremediorik. Bost irabazten baditut, ezin ditut hamar gastatu.

Aurreneko gauza egin behar dena:

— Jakin zenbat diru behar dugun egunero, gero astero, hilabetero eta, azkenik, urtean zehar.

— Zerbait aurreratu nahi badugu, edo gastu handiren bat espero badugu, zerrenda horretan azaldu beharko dugu.

Saiatu beharko genuke epe luzera planifikatzen, zeren horrela errazagoa da inprobisazioetan ez erortzea eta epe motzera ezinezkoak diren helburuak lortzea.

Honekin lotuta, beste gai garrantzitsu bat ere badago: dietak.

Oso zabaldua dago dieta hitza eta jende askok uste du ondo elikatuta egoteko diru asko gastatu behar dela, eta hori ez da egia. Oso diru gutxiekin posible da dieta

orekatua lortzea.

Ez dakizula nola egin? Burua pixka bat nekatu behar da, baina ez da zaila. Hala eta guztiz ere, laguntza behar baduzu, horretarako sortu dugu gure kooperatiba, etxeo martxa hobe bat lortzeko.

* LAGUN-BIDEKO KIDEA
(LASARTE)

.....

*“Ongizatea,
osasuna eta
alaitasuna
kontsumoarekin
parekatzen dira”*

USTEAK USTE

Urtebeteko tirabiren ondoren konpondu da Txotxueneko inguruak auzotarrak, Udala eta Bruesen artean sortutako eztabaida. Ikusita dago isilik geratzen denak ez duela jaten, eta interesak defendatzeko elkartzeak fruitua ematen duela. Batzutan.

Etheen eraikuntzarekin ari garenez, bada beste auzi bat urteak badoazen arren oraindik konpondu ezinean dagoena. Bai, Uherkape. Azatzako bizilagunek ez dute nahikoa 250 milioiko abalarekin. Hiru alde gogaituk egon behar dute hemen ere: goian bizi direnak, etxea pitzatuta ikusi eta epaiketetan sarturik garantiak eskatzen dituztenak. Etxe berria noiz egingo zain dauden 100 familiak bigarren; eta Udala, atzera eta aurrera, teknikoen ikerketa, eztabaida eta epaileen aginduz nazkatuta. Lanean diharduen enpresa, komunikabideen aurrean txintik atera nahi ez duena, ez dakit non kokatu. Guzti hori, gogoratze aldera eta simple-simple esanda.

Baina nik neuk, gustora egoteko arrazoiak dituen bakarra sumatzen dut, —eta berriro esango dut—, guzti honetan: etxe berriak ordaintzen hasteko emandako dirutza eskuartean darabilena. Nor den ez dakit, baina 31 egun baino gehiagoko abuztu egiten ari dela, hori bai!

ARANTZAZU LOIDI

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

Berango



Sukalde-
altzariak,
mahaiak eta
aulkiak.


Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

S.F.X. Ikastola-Udala hitzarmena Hezkuntza Delegazioaren menpe

Udalak eta San Frantzisko Xabier Ikastolak sinatu behar zuten Hitzarmenerako akordioa lortzea, ez da abenduan espero zen bezain erraza izango.

Abenduaren hasieran, San Frantzisko Xabier Ikastolako gurasoen asanbladari Udalarekin sinatzeko zegoen hitzarmenaren gai bide onetik zihola adierazi zitzaion. Hitzarmena, Udalarari Ferixalekuko obrak egin ordez, ikastolaren patrimonioaren zati baten lagapena egitea eskatzea zen. Obrek 225 milioitako aurrekontua zuten, eta sinatzea espero zen hitzarmenaren arabera, Udalak egingo zituen, ordainean Ikastolaren zenbait lokal eskuratuz.

Abenduaren 18ko Udal Plenoan gaia aztertu ez zenez, Ikastolako gurasoen asanbladari esandakoa ezerezean gelditu zen, baita ondorioz Ferixalekuko proiektua ere. Franzisko Jabier Aresti zinegotziak eta Hezkuntza Batzordeko buruak zioenez, gaiak momentuz aurrerabiderik ez izatearen arrazoia Hezkuntza Delegazioarekin dagoen desadostasuna besterik ez da. "Ferixalekua - zioen Franzisko Jabier Arestik-Udalaren eraikuntza da, baina eskola publikoa izan denez,



Ferixalekua konpontzeko lanek 225 milioitako aurrekontua dute

Delegazioak publikotasunaren izendapenari eusten dio. Izendapen hori aldatzeko baimena lortu arte, Udalak ezin du hitzarmenik sinatu; gauzak azkartzeko behar diren gestioak egiten ari gara orain, eta hilaren 25erako Delegazioak emango digu erantzunen bat, baiezkoa izatea espero duguna. Ezezkoa ematen badu, berriro hitzegiten hasi beharko genuke eta hitzarmenerako beste formularen bat aurkitu".

Jesus Garmendiak, Ikastolako presidente ohiak, fetxa bera aipatzen zuen Udala-

ren aldetik erantzunen bat jasotzeko. Hala ere, Jesus Garmendia ez zen Hezkuntza Batzordeko burua bezain baikorra. "Udalak dio Delegazioaren baimen barik ezin digula dirurik eman eta guk nekez ikusten dugu Delegazioak baimena ematea, horretarako publiko bihurtzea eskatuko dakiguke eta. Gure ustez, Delegazioaren baime naz edo barik, Udalak sinatu egin beharko luke, Ikastolaren erabakia Arrasateko hezkuntza munduko zati nagusienak kontsentsuatu-takoa da eta".

Bilerak bazkideekin

Ferixalekua eta Hitzarmenarekin zer gertatuko den jakin barik ere, Ikastolako Erretore Kontseiluak bazkide guztiei aipatutako gorabeheren berri emango die, eta horretarako auzoetan bilerak antolatu ditu. Bilerak honako toki eta egun hauetan izango dira: hilaren 18an Musakolako San Antolin Ikastolan, arratsaldeko 6.30etan; 19an Uribarriko Ikastolan, arratsaldeko 6.30etan eta hilaren 20an, Gazteluondo Ikastolako Areto Nagusian arratsaldeko 6.30etan ere.

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Datorren urtean Eskola Politeknikokoa Goi-mailako Ingeniaritza ikasketak eskainiko dira.

Eskola Politeknikoaren Batzar Nagusi garrantzitsua

Eskola Politeknikoko Batzar Nagusia burutu zen atzo arratsaldean, joan den ihardunaldiko txostena, diru-kontu eta balantzearen azterketaz hasi zen Batzar Nagusia; era berean, 1992-93ko Gestio-Plana aztertu zen. Aipatutako planaren barruan, datorren urtean Eskolak martxan jarriko duen ziklo berriaz hitz egin zen, Goi-mailako Ingeniaritzako ziklo berriaz. Gai honen inguruan aipa daiteke hiru unibertsitatekin akordioa lortu dela eta dagoeneko, eskolari tokia egiteko, Iturripe ondoan hasi direla obrak. Horretaz aparte, 14urtetik 16ra arteko ikasleen

zikloa San Franzisko Xabier Ikastolari pasa izateaz eta Saiolanek subentzio gehiago lor ditzan, elkarte instrumental bihurtzeaz aritu ziren.

Ekonomi-Erregimeneko xedapenei eta Estatutu sozialei zegozkien berrikuntzei buruz ere hitz egin zuten atzoko batzarrean. Horretaz gain, III. Kooperatiba Batzarrari, Arrasate Korporazio Kooperatiboaren antolamenduko proiektuari buruz garatutako iharduketan berrestea egin nahi zitzaion. Azkenik, Kontseilu errektoreko kideen eta kontu-ikuskariaren berrikuntza egin zen.

Txotxuene-Udala-Brues akordioa

Txotxueneko obrek eragindako kalteak konpontzeko akordiora iritsi ziren Udala, Construcciones Brues eta kaltetutako bizilagunek. Akordioaren arabera, hurrengo hamar urteetan etxebizitza arteko oinezkoentzako pasabidea zabalik utziko da eta erabiltzen dela egiaztatuz gero, horrela utziko da. Horretaz gain, Construcciones Bruesek, Gipuzkoa Etorbideko 40. zenbakian-sortutako kalteak konponduko ditu eta bizilagunei 4 milioi ordainduko dizkie.

Epaitegia lehen instantziako bihurtu nahi

Iazko ahaleginak alperrikakoak izan baziren ere, Bake-Epaitegia Lehen Instantziako Epaitegi bihurtzeko ahaleginei ekin dio berriaz Udalak. Bailarako Bake Epaitegiaren idazkaritzaren arteko elkarrekin sortzea merezi duen jakiteko, Udalak Ekain aholkularitzari ikerketa enkargatu dio, 600.000 PTako aurrekontua du horretarako.



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Begoña
lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.

• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORATZA



Martxoaren hasieran Lagun Aron burutuko den asanblada orokorrak erabakiko du kuoten zenbatekoa

Lagun Aroko kuotak aurten %9a igo nahi lirateke

Martxoko lehen larunbatean burutuko den asanblada orokorrean, Lagun Aroko kuota eta prestazioen zenbateko berriak onartuko dira, beste gai batzuen artean. Roman Balanzategik, Zuzendaritza Batzordeko presidentek zioenez, zuzendaritzaren asmoa aurten kuotak %9,10ean igotzea da, "baina horretarako, martxoko asanbladan, besteak beste, osasun laguntzetan, baja eta elbarritasun ordainketetan eta enpleguan proposatuko diren aldaketak onartu beharko dira. Aldaketa horiek onartzen ez badira, kuotak %20ko igoera izango du. Aurreko

urteei begiratuz gero, ez dago aldaketa handirik; enplegu arloa izango litzateke aipagarriena, %114,13ko igoeraz, eta normala denez, hori estaltzeko besteetatik zerbait kendu behar izan da".

Familia laguntzak, osasun laguntzak, hildakoenak, administrazio tramiteak, langabezia laguntzak, elbarritasunekoak, pentsioak eta enplegu laguntzak eskaintzen dizkie Lagun Arok bere bazkideei. Aurten goitorteko kuota fijoak 8.530 PTAKoa izango da; proportzionala, berriz, norberaren soldataren arabera, %25,59an ezarri da.

Fagor Ederlanek aluminioan inbertitu

Fagor Ederlanek, Remetal enpresarekin batera, 700 milioi inguru inbertituko ditu aluminio likidoa egingo duen enpresa berri bat zabaltzeko. Galdan izeneko enpresa berria, Legution kokatuko da eta 50en bat lanpostu sortuko ditu. Prebisioren arabera, urtebete behar izango dute lantegia martxan jartzeko.

UCEM-ek 4.000 milioiko inbertsioak

UCEM korporazioak azken hiru urteotan 3.899 milioi pezeta inbertitu ditu industrian, enpresa taldeak jakinarazi duenez. 1989, 1990 eta 1991. urteetako ekitaldien irabazietatik, korporazioak 1.072 milioi banatu zituen akziodunen artean. Enpresa taldekoek Sarrailegintza mekanikoa eta segurtasun elektronikoaren alorretan lanean ari diren enpresen iharduera koordinatzeko elkarte berri baten sorrera ere iragarri zuten: UCEM Cerrajera Sistemas de Seguridad SA.



ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



beinke

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK


Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

Txutxumutxuak



JABIER

Pasa den abenduaren 26tik 30era, Gabonetako oporretan, neska mutil talde hau Nafarroako Donestebe aldean izan dira egun batzuk pasatzen AEDko gazte taldea. Giro ezin hobean pasa dituzte egun hauek, beti ere euskararen erabilera indartu nahian.



FOTO IMAGEN

Rafa Salido eta Ana Muñoz irailaren 19an ezkondu ziren. Canarias irletan egon ziren ezkon bidaian. Zorionak!



Angel Erguin, Donostian bizi den mondragoetarrak eta Antonia Valencianok euren urrezko eztaiak ospatu dituzte iaz eta horretarako Suiza eta Austria aldean izan dira. Pasa den 92 urtea bete bete izan da eurentzat, Angelek dioenez: euren biloba Andrea Navajos ezkondu egin zitzaie, Angelek 75 urte bete ditu, Iban izeneko biloba etorri zaie mundura eta, aipatu bezala, urrezko eztaiak bete dituzte. Zorionak!

UGARTE

**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Ane Gallastegi izan zen 92an Arrasaten jaio zen azken umea eta Leire Fernandez Soriano, berriz, 93an jaiotako lehena. Anek 2,700 kilo pisatu zituen eta Leirek 3,295. Biak ere ume ederrak!



Zerrajerako erlojua geratuta ikusi dugu azken egun hauetan. Urte askoan herriko ordu ofiziala eman duen erloju hau, aberia baten ondorioz geratuta dago. Azken urtetan erlojuaren arduraduna izan denak aipatzen digunez, azken 70 urteotan martxan ibili da, ia ia Zerrajera sortu zenetik.

Txufxumutxuak

IZEN PROPIOAK

● **Goizane Jausoro**, 24 urteko arrasatearra, izango da aurrerantzean AEDko ludotekako arduraduna. Goizanek kazetaritza ikasi du Leioan eta AEDko begirale ere izan da.

● **Aintzane Gardoki**, 25 urteko arrasatearra, Deba Garaiko udal Elkarteak kontratatu du, Hezibide elkartearen 6 hilabetez lan egiteko. Helburua Hezkuntz Sistema berriaren inguruan sortuko den informazioa zabaltzea izango da, honek gizarte osoarentzat duen garrantzia kotutan izanik.

● **Josemi Arregi Aranzeta**, 36 urte, dugu San Frantsizko Xabier ikastolako lehendakari berria. Ekonomian lizentziatua, Copreciko unitate bateko zuzendaria da.

aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK

LARRUZKO PRAKAK 15.000 PTatik AURRERA!!!

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

SAMEGO
GARBIKETAK

Uribururu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39


7 MARES-en 3. urteurrena

ASTEARTEA hilak 19

%20ko deskontua

produktu izoztu guztietan.

Arrain eta
itsaskiak



MARES

7 MARES IZOZKIAK

Sebero Altube, 8 ARRASATE

Deskontudun produktuen adibideak:

- San Jakoboa 479
- Xerra azalduna 440
- Txipiroi garbia 604
- Mihiarraina 712
- Erreboiluaren solomoak 820
- Paellarako berezia 628
- Kalamarrak 440
- Txurroak 180
- Patata Frijituak 140
- Enpanadilak 384
- Indioila- izterrak 288
- Txuletilak 716
- Menestra berezia 314
- Menestra arrunta 173
- Idarrak 172
- Leka borobila 188
- Otarrainska handiak (6 ale) .. 1.599

**Zatoz
19an;
ez galdu
aukera!**

HITZALDIA




ARRAZAKERIAREN SUSTRAIAK

- **Luis Guridi**
EHUko irakaslea
- **J. M. Sánchez Carrión 'Txepetx'**
Idazlea
- Urtarrilaren 19an,
ASTEARTEA
- Arratsaldeko 7etan
- Monterron Kultur Etxean



Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Oporrak bukatuta, futbitoa berriz nagusi Zaldibarren

Ez dugu esango armiarmak, ameraunak egin eta egin ibili ondoren, Zaldibarko nagusi bihurtu zirenik txapelketa geldirik izan den denboran. Izan ere, futbito txapelketa baino gehiago da Zaldibar, hor burutu ziren Santamasetako kirol ihardunak, zenbait umeren jolastoki ere bada, eta ezin ahaztu noiz

edo noiz, norbaitek pilota edo pala hartu eta frontoia frontoi lanerako erabiltzen duela.

Dena dela, ezin uka txapelketa geldirik egon den denboran Zaldibar bera ere tristeago egon dela, zorionez armiarme ez zaie frontoiaz jabetzeko behar zuten astirik eman.

Iluntz eta
Iturriotz
tabernak
ARRASATE



AMAJUR
taberna

EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

Futbito Txapelketa

a

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	11	10	1	0	77	21	21
ZULOAK	11	10	1	0	47	19	21
LOS HEREDIA	11	8	1	2	57	18	17
AIZPUN BILA	11	8	0	3	44	29	16
ARRASATE KIROLAK	11	7	1	3	41	30	15
KAIXO LENIZ	11	7	1	3	49	42	15
URMAY B. K.	11	6	2	3	41	25	14
BETRAYER	11	5	3	3	37	28	13
DANOK LAGUN	11	5	2	4	32	27	12
SIBILIUS ROVER	11	5	1	5	30	27	11
BUKANAK	11	5	1	5	34	34	11
ITT	11	5	0	6	41	30	10
WHISKERIA LINDE	11	4	0	7	37	51	8
DRAFT	11	3	0	8	36	57	6
DRINK TEAM	11	0	3	8	12	46	3
GARIBAI-5 11	11	1	0	10	17	55	2
AMOZKIBAR II	11	1	0	10	24	74	2
RESAKAS	11	0	1	10	14	57	1
GUZTIRA	198	90	18	90	670	670	198

b

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	11	10	1	0	45	12	21
ZIZTI-ZAZTA	11	8	2	1	48	17	18
ZULUS	11	8	0	3	50	32	16
JODO FLORO	11	6	3	2	32	25	15
BIZKORRAK	11	7	1	3	23	18	15
DIEGO ANTONIO	11	6	2	3	45	27	14
MOTZ	11	6	2	3	48	54	14
PUBLICOOP	11	5	2	4	24	33	12
GATZBAKUAK	11	4	4	3	25	32	12
LA BANDA	11	4	2	5	29	28	10
ANBOTOSTE K. T.	11	4	1	6	30	36	9
TRONKOTEAK	11	4	1	6	36	39	9
KAKAJAURI	11	3	3	5	29	38	9
LAUTHERBRUNNEN	11	3	1	7	18	43	7
ATERPE KAFETEGIA	11	2	1	8	17	32	5
BAYERN PROMESAS	11	1	2	8	19	51	4
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	198	85	28	85	557	557	198

c

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	11	10	1	0	64	15	21
NOSKI	11	9	0	2	56	22	18
ADELAIDA-HAIZEA	11	7	2	2	57	18	16
LASO ARREGI	11	6	2	3	51	29	14
GURE LEKU	11	6	2	3	53	35	14
NUEVO TABERNA	11	6	2	3	49	33	14
TXOKO TABERNA	11	6	1	4	32	31	13
ARRASATE KRIST.	11	6	1	4	47	31	13
AUF DEM KOFFER	11	5	2	4	27	31	12
ADOBE F.C.	11	6	0	5	41	34	12
NAVARROS	11	5	1	5	38	38	11
ALPARGATA TURBO	11	4	2	5	36	40	10
GANBELAS	11	4	2	5	25	30	10
KRISKIBALDA	11	1	5	5	27	39	7
ATXANTA KE TE...	11	2	0	9	21	68	4
ALLA KUIDAUS	11	1	2	8	18	64	4
BALEIKE	11	1	1	9	18	65	3
SEGUROS ORBITA	11	1	0	10	26	53	2
GUZTIRA	198	86	26	86	686	686	198

d

taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. IND. UGARTE	11	9	2	0	74	19	20
LEINTZ GARAGAR.	11	8	2	1	39	15	18
POTROAK LORATEGI	11	6	4	1	41	29	16
FOTO IMAGEN	11	6	3	2	50	26	15
ZOTZ	11	7	1	3	36	41	15
LOS DIMY	11	5	5	1	53	29	15
MONTERREY TAB.	11	7	0	4	49	30	14
PEPELUS	11	5	4	2	39	25	14
KOKKAS	11	5	4	2	34	29	14
NOTXINGAN FLO.	11	5	3	3	47	39	13
SOLANO 7 MARES	11	5	0	6	45	36	10
SOKOAKOAK	11	4	1	6	45	49	9
ARTZANKOS UDAL.	11	2	3	6	39	44	7
OLEEE!	11	3	1	7	30	46	7
UGLYS	11	3	0	8	19	35	6
EZKIÑAKO HONTZAK	11	2	0	9	24	68	4
BAYERN DE LEINTZ	11	0	1	10	20	69	1
ILUNA TABERNA	11	0	0	11	14	69	0
GUZTIRA	198	82	34	82	698	698	198

Zarugalde kalean...

BRANKA taberna

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

LIZARRA taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35

BELARRIRA

◆ **Afaria.** Txapelketa bukatzen denean gastatu ezinik gelditu behar zen diruaz hogeitamarran bat afari egingo dira, eta astelehenean hasiko dira afarien zozketak. Afariak, Txoko eta Hostal tabernetan egingo dira eta talde sarituari zozketa egunean bertan esango zaio, afaria noiz den. Astean bi afari direnez, ezin izango dira atzeratu eta asteburu berean egin beharko dira. Normala denez, afariaren saria irabazten duen taldeak ez du beste zozketetan sartzeko aukerarik izango, hasieran zortetik ez dutenek aukera gehiago izan dezaten. Zozketak ATBn egingo dira, Mondrasport saioaren barruan.

◆ **Partiduak.** Asteburu honetan jokatuko diren partidurik interesgarrienak hauek dira: A taldean, Aizpun Bila - Urmay Burger King; B taldean, Publicoop - Diego Antonio; C taldean, Laso Arregi - Trikiti; eta D taldean, Monterrey taberna - Potroak Lorategi.



Futboleant ala gitarra jotzen? zertan ari ote da? U2 musika-taldeko kamiseta jantzi eta badirudi baloia gelditzeaz gain, eskuartean duen gitarra ikustezina jotzen ari dela.

EMAITZAK

A TALDEA

- Drink Team 1 ITT 6
- Zuloak 2 Danok lagun 1
- Betrayer 4 Urmay B. King 3
- Resakas 0 Whiskeria Linde 3
- Bukanak 1 Argi Ibili 5
- Amozkibar II 4 Kaixo Leniz12
- Los Heredia 6 Arrasate Kiroalak 3
- Aizpun bila 5 Draft 2
- Garibai-5 0 Sibilius Rover 2

C TALDEA

- Atxanta ke te... 2 Auf Dem Koffer 3
- Nuevo taberna 5 Alpagata turbo 2
- Ganbelas 2 Alla kuidaus 2
- Gure Leku 1 Txoko taberna 2
- Laso Arregi 2 Baleike 3
- Arrasate kristaldegia 4 Kriskibalda 4
- Adobe F. C. 1 Trikiti 4
- Navarros 6 Seguros Orbita 0
- Adelaida Haizea 5 Noski 2

B TALDEA

- Mikelos 3 La Banda 0
- Kakajauri 1 Bizkorrak 3
- Zulus 10 Motz 5
- Gatzbakoak 1 Tronkoteak 0
- Diego Antonio 4 Jodo Floro 2
- Bayern Promesas 1 ... Anbotoste K. T. 2
- Zizti zazta 5 Lautherbrunen 0

D TALDEA

- Monterrey tab.3 Solano 7 mares 1
- Los Dimy 1 Foto imagen 1
- Ezkiñako hontzak 3 Koxkas 5
- Sokoakoak 5 Iluna taberna 3
- Uglys 0 Potroak Lorategi 4
- Sum. Ind. Ugarte 2 Pepelus 2
- Bayern de Leniz 1 Leniz garagar. 4
- Oleee 2 Notxingan Florest 3
- Zotz 3 Artzankos Udalaiz 2



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



Zeramikako pabimentu eta gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE



Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE



ASTEBURU HONETAN

Larunbata 16

Zaldibar

- 08.45 Zuloak / Whiskeria Linde
- 10.00 Aterpe Kafetegia / Jodo Floro
- 11.00 Ganbelas / Adobe
- 12.00 Aizpun Bila / Urmay B. King
- 13.00 Ezkiñako Hontzak / Leintz Gararagi
- 14.00 Monterrey Taberna / Potroak Lorategi
- 15.00 Alpargata turbo / Txoko taberna
- 16.00 Noski / Nuevo taberna
- 17.00 Uglys / Bayern de Leniz
- 18.00 Zotz / Notxingan Florest
- 19.00 Oleee / Koxkas

Iturripe A

- 13.00 Betrayer / Arrasate Kirolak
- 14.00 Kakajauri / Motz
- 15.00 Atxanta ke te... / Baleike
- 16.00 Foto Imagen / Iluna taberna
- 17.00 Zulus / Gatzbakuak

Iturripe B

- 11.00 Bukanak / Los Heredia
- 12.00 Publicoop. / Diego Antonio
- 13.00 Navarros / Alla kuidaus
- 14.00 Draft / Garibai-5
- 15.00 La Banda / Tronkoteak
- 16.00 Gure Leku / Arrasate kristaldegia
- 17.00 Resakas / Amozkibar II

Igandea 17

Zaldibar

- 08.45 Solano 7 Mares / Pepelus
- 10.00 Artzankos Udalaiz / Los Dimy
- 11.00 Auf Dem Koffer / Kriskibalda
- 12.00 Sokoakoak / Sum. Ind. Ugarte
- 13.00 Seguros Orbita / Adelaida Haizea


Iturripe A

- 09.45 Drink Team/ Argi Ibilii
- 11.00 Anbotoste K. T. / Zizti zazta
- 12.00 FT / Kaixo Leniz

Iturripe B

- 09.45 Laso Arregi / Trikiti
- 11.00 Lautherbrunnen / Bizkorak
- 12.00 Sibilius Rover / Danok Lagun


NON DAGO BALOIA?



8. astea

Non dago baloia?

- Erantzuna
-
-
-
-
-
- Izena
-
-
-
- Tfnoa
-
-



● **Jon Egidon** izan da **Non dago baloia?** lehiaketako hirugarren irabazlea. Honek ere **20.000 PTA**ko baliokid erosketa egin ahal izango du **Arrasate Kirolak**en. Zorionak irabazleari eta beste irakurle guztioi, animo eta bidali zuen txarteltxoa.

NUEVO taberna

Bañez Doktoarea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tifnoa: 77 13 02


Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

Trikiti S.L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxe: 79 88 56



Javier Abaldek ez du uste Errepideetako plan orokorrak mesederik egingo diotenik bailadako herriei.

JOSEBA

Javier Abalde

Errepide plan orokorraren aurka

Beñardo Kortabarria

Javier Abalde, donostiarra, 49 urte. Bilbon topografia ikasketak egin zituen eta azken 26 urteotan Diputazioan dihardu, topografo lanetan. EKI ekologista taldeko partaidea, aspaldidanik bizi da Arrasaten. Topografoa eta era berean ekologista izatetik, Errepideetako Plan Orokorraren aurkako jarrera hartzerara iritsi da.

— Zergatik Errepideetako Plan Orokorraren aurka?

— Uste dut egoera ekono-

mikoa nahiko kezagarria dela eta horretan gastatu behar duten dirutza beste gauza batzuetan gastatu beharko luketela. Errepide azpiegitura indartuta etorkizuna hobea izango dela diote eta planteamendu horiekin ez nago ados. Alemania, Italia edo Frantzia esatebaterako autopista izugarriak daude, baina krisi ekonomikoa berdin samar ari dira jasaten. Horrelako planteamenduek, lehentasuna ematen diote garaio pribatuari eta ondorioz autoegileen industriaren interes ekonomikoei eta, horrekin lotuta, kautxo eta petrolioaren industrienei ere bai.

— TAV edo Abiadura Handiko Trenaz zer diozu?

— AHTarena lotsagarria da, trenbide guztien konponketak egiteko proiektua martxan zegoen eta bapatean, AHTa egitea erabaki zuten, aurreko proiektua pikutara bidaliz, eta zertarako? nork erabili behar du AHTa? Dirua duenak Madriletik Sevillara bidaia ordubete gutxiagoan egingo du, baina ez ditu herrien arteko komunikazio arazoak konponduko.

Tren normal batek, trenbideak konponduta 200 kilometroko orduko abiada harrra dezake, baina AHT iza-

teko gutxienez orduko 250 kilometroko abiadura harrrapatzea eskatzen da. Aipatutako diferentzia lortzeko, teknologia berria ekarri behar da, Frantzia, Alemania edo Japoniatik, royaltiak ordaintzeko diru piloa gastatu eta gero.

Ingurugiroan izango duen eraginaren aldetik, esan beharrik ere ez dago: segurtasun bideak jarri behar dira, aldatzak ezabatu... eta gainera ez du herrien arteko bidaiak egiteko balio.

— 25 urte dira hemendik trena kendu zutenetik...

— Autoegileak eta auto-

moziarako pieza lantegiak, normalean estatu gehienetan lehen mailako industria dira eta gainera petrolioia gastatzen dute. Hori gutxi balitz, kontuan hartu behar da auto bat erosterakoan Estatuak prezioaren %30a jasotzen duela; Udalak ere eramaten du bere zatia, interes handia dago garraio pribatua bultzatzeko. Jendeari dirua kotxea erosten gastatzeko esaten bazaio, horretan gastatuko du, ez trenean; ondorioz, zerbitzu horiek defizit handia sortzen dute eta geroz eta tren gehiago kenduko dute.


— Bailadara etorri, AHTaz gain, Maltzaga-Urbina eta Durango - Beasain...

— Maltzaga-Urbinari buruz gezur piloia esan da: Autopistaren finantziakoa pribatua izango dela diote, baina hori ez da egia, kasu onenean ere, finantziakoa %40a publikoa izango da eta. Diru pribatuak obraren %60a ordainduko du eta gainera, %60 horren zati bat 2.015. urtera arte luzatu duten peajeen diruaz aterako dute.

Bailadari onura ekonomikoa ekarriko diola ere aldarrikatzen dute, eta uste dut onura, kotxeak bezain azkar pasako dela; Eibar eta Elgoibarren esaterako, autopista egin zutenetik ezin da esan ezer konpondu denik. Autopista hiri eta industria handi eta garraio pribatuari lehenetasuna emateko da; bertako herriek ezer ere ez.

— Eta gastua?

— Bilbo-Behobia autopistarena kristoren pasada da, Europako autopistarik garestiena izanda, oraindik kontzesioa luzatzen da. Durangon bizi eta Bilbon lan egiten duen edozeinek, Zornotzan orduerdi geldirik egon nahi ez badu, hilero 12.000 PTA gastatu behar ditu autopistan. Jendea aspalditik dabil horrela ordaintzen, eta antzera Eibar-



Errepide-sarea egiten bada bailara ezagutu ere ez dugula egingio, dio Javier Abalde.

JOSEBA

Donostia eta antzeko bidea egiteko; ez daukat ikerketa sakonik eginda, baina peaje hori berriztatzea aurpegi latza edukitzea dela iruditzen zait.

Azkenik, ingurugiroan izango duen eragin txarra aipatuko nuke. Obra guzti horiek egiten badituzte, bailara ezagutu ere ez dugu egingo; besterik ezin daiteke etorri honelako bailada estuan autopista handi hori sartzetik.

— Hortaz, ume batek ere galdetuko luke: hain txarra bada, zergatik egin nahi dute?

— Espekulazio itxura hartzen diot. Mesetaren eta mugaren arteko komunikazioak eta bailada barrukoak hobetu egingo direla diote.

Lehenengoari dagokionez, Maltzaga-Urbinak ez dauka zertan N-1eko alternatiba baino hobea izan beharrik. Egia esan, garestiagoa izango da, N-1a ez da ordaindu behar eta autobide bezala jar daiteke. Barne-komunikazioei dagokionez, argi dago autopista batek ez duela irteera gehiegi, gutxi ditu eta hemen toki txikian herri asko gaude, ikusi egin beharko genuke proiektuak

horientzat irtenbiderik duen edo ez. Bailadaren komunikazioa hobetzeko hobea litzateke oraingo bidea konpontzea, Arlaban barne.

— Errepide bat egiteko bestea atzeratu behar da?

— Maltzaga-Urbina egitekotan, badirudi Durango-Beasain korredorearen proiektua atzeratu eta orain Epelekoa bakarrik egingo dela. Errepide horiek, normalean Bergaratik pasa behar luke eta Arrasatetik pasako da. Honek arrazoi bakarra izan dezake: MCC, ekonomikoki indar handia duen taldea da, EAJ/PNVz lotura handikoa gainera. Eroskiri eta taldearen garapen planei Estatuan zehar oso ondo letorkieke; ez da kasualitatea Elorrioko barriantzerako sarrera-irteerak Eroski parean egotea, nahiz eta bestalde toki onena izan; gero, normalena Bergara aldera joatea izango litzateke, ez Arrasatera; beraz, nik uste dut guzti honen atzean kooperatibekin lotura duen zerbait dagoela. Gehiago ikertu behar dut, baina niretzat ulertezina da gastu handi hau egitea, hemendik pasatzea eta ez Bergaratik...

B
ailadaren
komunikazioa
hobetzeko, hobe
litzateke oraingo
bidea
konpontzea,
Arlaban barne”

— **Herriko zirkulazio arazoa nola konponduko zenuke?**

— EKIkook bailadako azpiegitura hobetzearen aldekoak gara, hori garbi gera dadila. Kamioiena arazo gogorra da eta Bizkaiarantz doazen kamioiei irtenbidea aurkitu behar zaie, herri barrutik ez pasatzeko.


— **Bidegorriak?**

— Errealitate bihurtzeko ahaleginak egin behar ditugu. Agintean daudenek ez dute ardurarik, Aretxabaletara oinez joan nahi izanez gero, espaloi txiki bat besterik ez dago, eta lehen trenbidetik jende piloak ibiltzen zen. Bizikletan ibiltzeko gauza bera, irteten duena bizitzan arriskuan jartzen, Aramaiora edo Oñatirantz bakarrik joan zaitezke eta San Prudentzioraino larrilari joanda. Ez dago proiekturik horrelakoak egiteko.

Errepideena eta autoena erokeria handia da, 85etik 90era milioi bat baino auto gehiago erosi ziren Estatuan, ondorioz parkeak egiteko erabili beharrean, autoentzako aparkalekuak egiten erabiltzen da lur-publikoa. Guztiok gara erokeria horren partaide; zerbitzu publiko onak balaude, aparkaleku txiki batzuk nahikoa lirateke.

— **Teknikoei zenbaterainoko kasua egiten dizuete?**

— Erabakiak politikoak dira. Bidea hemendik pasatu behar bada, planoak egiten ditugu eta nondik joango den markatu, hala ere, markatzen ni edo beste lagun bat joan, oso desberdina da. Teknikoek azkenean gizarteak erakusten duenetik ikasten dute, zer da onena? errepide zuzena. Lehen Castillan, herri batetik besterako errepideak zuzenak izaten ziren; orain ez dira hala egiten, istripu gehiago gertatzen direla ikusi da eta, baina horrelako arrazoiek bakarrik aldatzen dituzte erabakiak, bestelakoak ez.



"10 minutu lehenago"koen aurka zail ei da ezer egitea. JOSEBA

— **Hain erroturik dauden ideiak alda daitezke?**

— Jarrera horien aurrean indarrak biltzea besterik ez dago, baina eragin gutxikoa eta poliki doan bidea da hori. Kaleetan gero eta auto gehiago dabil, kaleak estu geratzen dira, ... zergatik hainbeste ardua herri arteko komunikazioengatik eta era berean trenak kendu? Normala da trenetan gero eta jende gutxiago ibiltzea, jende gehiena autoa erostera bultzatzen da eta. Horrelako jarrerak, ia jendearen kulturen daude eta oso zailak dira aldatzeko.

— **Badago ezer egiterik "hamar minutu azkarrago"ko gizartearen aurka?**

— Zaila da. Aranguren filosofoak idatzitako liburu bat irakurri nuen orain urte batzuk, denbora libreari buruzkoa. Berak zioen lehen jendeak pasiatu egiten zuela

eta orain jendea oinez ibiltzeri irretzen dela, argaltzeko edo horrela, baina ez lasai egon eta beste gauza batzuk pentsatzeko. Bidaiekin gauza bera gertatzen da; badirudi Turkia edo Tokiora ez doanak ezin duela bidaia onik egin. Trenez edo autobusez doanak, herri batera iritsi, bertan ibili, jendearekin hitz egiteko aukera dauka; kotxez doanak, berriz, ikusteko dagoena ikusi eta berehala alde egiten du. Zentzugabeko beharrak sortzen ditu gizarteak.

— **Non dago ekologia eta garapenaren arteko oreka?**

— Ekologiak zer ikusi handia du planeta honetan gertatzen denarekin, gizakien arteko harremanak dira ekologia. Txoriak hiltzen dituztela jakiteak kezkatzen nau, baina arazoa sakonagoa da: 3. mundua herri garatuen modeloa jarraitzen behartzen dugu, hori da arazoa. Herri aurreratuok beste modu batera bizi behar dugu, kontsumo gutxiagoz, eta horrek ez du esan nahi poz gutxiagoz biziko garenik. Jendeak ez ditu horrelako gauzak ulertzen.

— **Ekologistei beti esaten zaizue atzetik zoaztela.**

— Argi dago mugimendu alternatiboek ez dutela besteen mediorik, beraz zaila da goi-mailan zer gertatzen den jakitea, Maltzaga-Urbinaren kasuan esaterako. Nik neuk Diputazioan lan egiten dut, baina nolakoak naizen badakitenez, arazoak izaten ditut datuak jakiteko, proiektua publikoa izan behar duenean.

— **Ekologistak ez zarete erradikalegiak?**

— Ez dakit, norberaren irudia aldatuz joan behar da poliki-poliki, lau zoro ez gara adierazteko. Txakurrari gertatzen zaionaz bai, baina gizonari gertatzen zaionaz arduratzen ez garen irudia apurtu egin behar dugu.

H
irugarren
mundua herri
garatuen eredua
jarraitzen
behartzen dugu,
herri da
ekologiaren
arazoa"



AUKEA sariez gain, aurten herritarrek kirolari edo kirol talde onena aukeratu ahal izango dute LASO-ARREGI

Publikoaren saria arrasatearren esku

Arrasate Kirol Elkarteak sari bat emango dio 1992ko kirolari edo kirol-talde onenari, arrasatearrek bozketaz aukeratuko duten kirolariari hain zuzen ere.

Kirolari onenaren aukeraketan parte hartzen dutenen artean, hiru baloiren zozketa egingo da. Horretarako, kirol talde edo kirolariaren izena eta norberaren datu pertsonalak paperean idatzi, eta urtarriala bukatu aurretik Arrasate Press edo ATBra eraman.

Idea garbirik ez dutenentzat, hona hemen lagungarri izan daitekeen zerrenda, baina kontuan hartuta beste edozein kirolari aukeratu daitekeela:

- Futbola: Luis Mari Lopez
- Rekarte
- Txirrindua: Enrike Alonso
- Rugbya: Patxi Gorosabel
- Judoa: Gaizka Aranegi
- Pilota: Juan Jose Urrea
- Boxeo: Xanti Galán
- Ekipoak: Emakumezko Mondra, Arrasate Saskibaloioi...
- Arrasate Press eta ATBn biltzen diren botu guztiak zenbatu eta botu gehien lortzen dituen kirolari edo kirol taldeari emango zaio publikoaren saria. Sari hau, otsailean banatuko da, seguruaren Elgorriaga Bidasoa eta lehen mailako beste eskubaloio talde batek Musakolan jokatuko duten partiduan.

PUBLIKOAREN SARIA

Aukeratu ezazu Arrasateko kirolaririk onena eta 3 baloien zozketan sartuko zara.

Kirolaririk onena:

.....

Izena

.....

Helbidea

.....

Tfnoa



LABURRAK

Besaideren urteko lehen mendi irteera

Besaide Elkarteak urteko lehen irteera egingo du hilaren 24ean, sagardotegira joango dira eta gero Goizueta - Artikutza - Aranaz ibilbidea egin nahi duten guztiek 19, 20 edo 21ean izena eman beharko dute Besaiden, 7.30etatik 8.30etara. Prezioak honako hauek dira: bazkariarekin bazkideek 2.800 PTA, bazkide ez direnek 3.100 PTA eta gazteek 2.400 PTA; bazkari barik bazkideek 800 PTA, bazkide ez direnek 1.100 PTA eta gazteek 400 PTA.

Arrasate Kirolak-eko atletak bikain

Arrasate Kirol Elkarteko atletak, bostgarren postua lortuz, lan ona egin zuten Taldeen arteko Euskadiko Pista Estaliko Txapelketan. Arrasatearrek ez zuten ordezkaririk izan proba guztietan; beraz, lortutako postuak meritu handiagoa dauka. Askeburu honetan eta hurrengoan, Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketa absolutuak burutuko dira Anoetan.

Saskibaloian emakumeak igoera fasera

Irungo taldeari 63 - 54 irabazi ondoren, Arrasate Saskibaloio taldeko jokalariek igoera fasea jokatuko dute. Arrasatearrentzat ezinbestekoa zen garaipena lortzea eta arazo ugari izan bazuten ere, partiduko bigarren zatian nagusitza lortu zuten.

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novcentoesklusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

UXARTE

Kafetegia, gozotegia

Gauetz irekita!! JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

"PAL"

burdindegia, brikolage eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

PENALTIAK

● **Iaz kadete mailako taldea sortu zuten moduan, aurten Rugby Elkar-tekoek aurrerapauso berri bat eman nahi dute eta urtarilaren bukaerarako, emakumezkoen taldea aterako dute. Neskek, hamabost inguru, astean hiru aldiz entrenatzen dute eta berriak izan arren beldur barik eta ilusioz dabilta. Entrenamenduak, astearte eta ostiraletan arratsaldeko 7etan eta larunbat goizetan izaten dira.**

● **Pilotariak lasai samar daude egun hauetan, baina otsaila hasten denerako makina bat lan izango dute, alde batetik Euskal Liga eta bestetik Deba Arroa Txapelketak hasiko baitira.**



LASO-ARREGI

AUKEA sarien banaketa Musakolako kiroldegian

Ia urtea hastearekin bat, hilaren 2an arratsaldeko bostetan eta Iturripeko kiroldegian, Arrasate Kirol Elkartea Construcciones Brues eta Luminosos Regi-ren arteko partidua atsedendian, 1992ko AUKEA sarien banaketa egin zen. Hori dela eta han bildu ziren Angel Garcia, kirolari onena; Joxe Errasti, bere emaztearekin batera, ohorezko saria; eta AKEko futbito taldeko kapitaina, Eugenio Arana. Normala denez, sariak emateko han izan ziren AUKEAko ordezkariak ere, Agustin Ibarluzea "Txispas" presidentea buru zutela.

Belokiren aurkako fina-lean zer?

Irabazi noski, kantxarra hori pentsatuz irten behar da, bestela jai dago.



**J. L. IRAZOLA
Iaz 2. mailako Txapelkun eta aurten finalista**

EMAITZAK

Saskibaloia

Seniorrak: Gizonezkoak, Alvecon 67 - Arrasate 62
Emakumezkoak, Arrasate 63 - Antenas Dominguez 54

Juniorkak: Aralar 45 - Arrasate 96
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate A 90 - Don Bosco 73

Emakumezkoak, Arrasate 48 - Loyola 39
Kadeteak: Gizonezkoak, Arrasate A 62 - Ordizia 66
Miner Ardoak 49 - Arrasate B 63
Emakumezkoak, Orio 57 - Arrasate A 30.

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Arrasate - Jarrilleros, larunbata, Musakolan 6etan.

Juniorkak: Arrasate - Ordizia, igandea, Musakolan 12etan.

Jubenilak: Arrasate B - San Benito, larunbata, Musakolan 4etan.

Kadeteak:

Gizonezkoak, Arrasate B - Arrasate C, larunbata,

Musakolan 12etan.

Emakumezkoak, Arrasate A - Izukaitz, igandea, San Viatorren 12etan.



Eskubaloia

Seniorrak: Bergara 23 - Arrasate Kirolak 18

Juniorkak: Arrasate Kirolak 26 - Leizaran 17

Jubenilak: Arrasate Kirolak 14 - Hernani 20

Kadeteak: Bizkor 18 - Arrasate Kirolak 15

Hurrengo partiduak

Seniorrak: Arrasate Kirolak - Bizkor, larunbata, Iturripen 6etan.

Rugbya

Seniorrak: Algorta 21 - Arrasate 5.

Hurrengo partiduak

Kadeteak: Arrasate - Getxo, larunbatean arratsaldeko 4etan Garagartzan.

Pilota

Promoziozko Txapelketaren hasiera, 8 urtetik 14 urtera arteko haurrak, Bergararen aurka, larunbatean Iturripen, goizeko 10etatik aurrera.

**"EDERTU"
ileapaindegia**



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**



Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

SALBERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA



Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE

Tabakismoaren ondorioak

Tabakismoa ondo errotuta dago gure gizartean. Tabakoaren kontsumoak osasunerako ondorio kaltegarriak dauzka eta heriotz arriskua areagotu egiten du.

Gure inguruan ematen diren heriotz guztietatik %10ak erlazio zuzena dauka tabakoaz.

Tabakoaren kontsumoaz erlazionatuta dauden gaisotasunik inportanteenak hauek dira:

- Biriketako minbizia edo kantzerra
- Broonkitis kronikoa eta horren ondorioz arnasa hartzeko arazoak
- Bihotzeko gaisotasunak (bularreko angina, infartoa eta bapateko heriotza).
- Odol-hodietako gaisotasunak (hanketan batez ere)
- Gastritisa eta ultzera duodenala
- Urdaileko minbizia
- Laringeko minbizia
- Faringitis kronikoa



• Emakumeak, haurdun dagonean erretzen badu, jaioberria pisu gutxiagorekin jaiotzen da.

Halaber, kontuan hartu behar da erretzaileen zigarroen keak kalte egiten diela erretzen ez dutenei. Horrela, erretzaileekin bizi diren haurrek arnasketa eta arnasbide-

ko arazo gehiago izaten dute.

Zenbat eta gehiago erre, orduan eta handiagoa izaten da arriskua. Modu berean, gaisotzeko arriskua gutxitu egiten da erretzeari utzitakoan.

Azkenik, jakin behar dugu tabakoa droga bat dela eta dependentzia handia sortzen

duela. Erretzeko ohitura kentzeko, motibazioa da tratamenduan faktorerik garrantzitsuenak. Inor erreari uzteko motibazio bila ari bada, artikulu honetan aurkituko dituz arrazoi batzuk. Merez du!

KARMELO ETXEBERRIA
MEDIKUA



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

● *Jakoba Errekondo*

Naturaren defentsa denon esku

Ingeneru agronomoa eta EHNEko partaidea dugu Jakoba. AEDko emakume taldeak antolatzen dituen hitzaldien barruan, landare, berde gune eta lora desberdinez mintzatu zen Jakoba.

— Arrasateko berdeguneei buruz zer iritzi duzu?

— Zentzu horretan guretzat mito bat da Arrasate. Ez dago berde gune asko, baina daudenak oso ondo banatuta daude. Jendearentzako Donostia dena, niretzat Arrasate da. Badaude arazo batzuk, baina hori normala da, denak koordinatzea oso zaila izaten da eta.

— Etxeko landareei buruz, zeintzuk dira zaintzeko oinarriko trukoak?

— Kasu bakoitzean tratamendua desberdina da, landare bakoitza mundu bat da. Adibidez, ureztatzeko orduan ere denak ureztatzeko ohitura txarra izaten dugu. Norma bezala, esaten dute guk uste dugun erdietan ureztatu behar direla. Eta hau adibide bat besterik ez da. Ditugun landareak ezagutzea oso inportantea da.


— Badago landareak zaintzeko berez gaitasuna duen jendea?

— Bai, baina ezin da jakin zergatia. Landareek, abereek eta pertsonak bezala, sentitu egiten dute eta hori zainketan igarri egiten da. Ikerketa asko egin da, hitz eginez, musika jarritz, sentsazio elektrikoak neurtuz, emaitza izugarriak lortu daitezke. Landareak eskertu egiten du eskainitako zainketa. Bestalde, landareek gogorrakoak izateko beharra dute. Abereek hotz badaukate, babestokia bilatuko dute baina landareek ezin dute mugitu. Landarea, fenomeno hauei aurre egiteko indartsuago bihurtzen dira.

— Osasunarentzat, esaten den bezain kaltegarriak dira?

— Landareek egunez airea garbitzen dute eta gauze oxigenoa hartu. Landare asko baldin badago eta ez bada korrienterik sartzen, orduan

● “Nekazaritza biologikoa da etorkizunari begira bide bakarra”



sor daiteke arriskua. Baina etxe batean 3-4 lora daudenean, ez dago arriskurik.

— Badago desagertzeko zorian dauden lore edo landarekin?

— Bai, asko. Landareak hiltzea ere naturaren zikloaren barruan sartzen da. Gauzek euren hasiera eta amaiera izaten dute. Baina, penagarria da kasu batzutan gizonaren erruz desagertzea eta zoritxarez askotan gertatzen da.

— Erakundeen aldetik badago ardurarik landareak kontserbatzeko?

— Behar dena baino gutxiago. Baina ez landare bakoitza kontserbatzeko, natura osoa baizik. Gure bizitza osorik defendatu behar dugu. Landarerik gabe ezin gara bizi eta ez dugu osotasun horretan pentsatzen. Birziklapenarekin ere gauza bera, pilak erreziklatzea ez da nahikoa, pilarik gabe ere bizi daiteke eta.

— Nekazaritza biologikoari buruz zer uste duzu?

— Beharrezkoa eta etorkizunerako bide bakarra. Hori da Euskal Herrian egin dena azken 20 urte hauetara arte. Orain galduz doa, espezie batetan espezializatzen ari garelako.

PUB HAIZEA



Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



Arrasate 1910ean

Arrasateren jatorriak (I)

1260an, politikoki egituratutako herri bat sortzea eskatu zioten Alfonso X.ari garai hartan Arrasateko lurretan bizi zirenek. Erregeri berari ere oso komenigarria zitzaion herriak antolatzea, Gipuzkoako herrialde osoa antolatzeko zuen asmoa jarraituz. Ordurako sorturik zeuden Gasteiz, Treviño, Mutriku, Hondarribia, Getaria, Zarautz, Segura, Tolosa, Biasteri, etb, eta 1260an sortu zen Mondragon izenez gure herria.

Ingurune honetan bizilagunek, ez dirudi antolakuntza handirik zutenik, Mondragoeko Karta ematerakoan ordurarte egon zitezkeen araei jaramonik

egin barik araudi berri-berria jarri zen eta indarrean, beste batzuen sorreran erabilitako araudi berak. Mondragoeko Kartan honela dio: "daqui adelante para siempre jamás otorgámosles que hayan los ffueros e las franquexas que han los de Vitorria en todas cosas", Gasteizko arauditik kopiatua da, beraz.

Foru horretan, erregeri edo estatuari zor zitzaizkion errentan eta zerbitzuetatik salbuespenak ezarri ziren, herria sortzearen truke. Lege penalak ezarri ziren, etxebizitzaren bortxaezintasuna dekretatu, merkataritza askatasuna eta foruak hartzen duen esparrua oso zehazki

mugatu zuen. Beste urrats garrantzitsu bat herriko merkataritza eta azoka antolatzea izan zen, eta udalbarrutian bizi diren herritar guztiei ondasun komunalak nekazaritza, larre eta egurrerarako erabiltzeko eskubidea eman. Ahalmen horrek eragin garrantzitsua izan ei zuen herriko aktibitateko estimulu gisa, ematen zion autonomia eta baliapideengatik.

1260ko maiatzaren 15ean Mondrago sortu aurretik hemen bizi ziren herritarrek n ahotan pobladoren de la puebla que es en Leniz que habie antes nombre Arrasate e que nos ponemos nombre Mondragón".

SUTONDOAN

Mikolasen astoa eta Osinaldeko Joxanton (III)

Lan sariak jaso, ostalura joan, kontuak garbitu eta ordaindu ostalariari, eta bilkurak egin eta hona bidean jarri orduko, eguna azkenetan zegoen. Oraindik ez zituzten kilometro bi egingo eta soro bazter bateko esate ondo baten asto beltz ilun bi aurkitu zituzten. Orduan, Martinek esan zion Joxantoni:

— Oraindik oinez joateko urrutitxo gaudek eta asto hauexek ezin eta egokiago zetozkiguk. Ezagutzen dizkiat eta oso arinak dituk. "Arre Mikolas" esatea nahikoa ditek, begi itxi-ireki batean geroon etxean entregatzeko. Eseri gaitezen euren gainetan.

Eseri ziren euren bizkarretan "eta arre Mikolas" esan eta abiatu ziren etxerantz.

Gure Joxanton, astuaren gainean eseri besterik egin ez zalakuan eta Osinaldeko zubiaren erdian zihoala ohartu zenean, guztiz harriturik, "Jeesus mila bider!" esan zuen bere betiko ohiturari jarraituaz eta bat batean bultzgailu edo baileza ahalmentsu batek eraginda bezala, zubipeko osinaren erdian jausi zen. Handik, murgil egindako arratoia bezala ura zeriola lehorreratu zenean, alde guztietara begiratu arren, bera ekarri zuen astoaren errainurik ere ez zuen ikusi, ezta Martin ekarri zuenik ere. Mikolasenak baitziren!

(Jarraituko du)

ARREGI TAR TIBURTZIO

LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA

Zelulitua, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.


ELGORRIAGA dk. Estetika Zentrua

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Elektroinjekzio Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



967ko uztailean Mondragoeko neska talde batek Gogojardunak edo Ejerzizioak egin zituen Arantzazun eta orduan ateratako erretratua dakargu aste honetan. Eurekin eserita dagoen monjaren izenik ez dakigu, baina hona hemen gainerako guztiak, goitik hasita, ezkerretik eskumara:

Maria Jesus Iburguren, Miren Gallastegi, Kristina Vitoria, Mertxe Larrañaga, Nekane San Migel, Mariatxen Aranzabal,

Begoña García, Kontxi Lazpiur, Begoña Gorosabel eta Itziar Arregi.

Bigarren iladan ezkerretik, **Marisol Lazkano, Maria Angeles Goitia, Garbiñe Zubillaga, Izaskun Agirre, Marixi Bermejo, Maite Gorosabel, Mariasun Aranbarri, Mari Nati Martinez, Arantxa Amozarrain, Begoña Larrañaga eta Arantza Akizu.**

Hirugarren iladan: **Ana Miren Etxagibel, Maria Angeles Iñurritegi, Koro Barrena, Elena Iturbe,**

Loli Zeziaga, Puri Arregi, Puri Goikolea, Espe Amozarrain, Maria Angeles Zubizarreta eta Amaia Garai.

Eserita, ezkerretik hasita, **Mari Tere Balzategi, Rosa Mari Castellanos, Pili Romero, Yolanda Moreno (hila), Kristina Etxeberria, Izaskun Eguren,** monja ezezaguna, **Mari Karmen Ginart, Arantza Arizabaleta, Pili Uriarte eta Arantza Telleria.**



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iarruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

TXITXINPE

BEREZITASUNAK .

Kafea, ardoak,
urdaitegia, fruitu
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Logela bat alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Bilbo ondoan ikasleen pisu baten leku bat behar dut. Dei egin 76 38 73 tfnora. Eguerdiko 12.30etatik 13.30etara. Felix.

Lana

- Edozein lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 52. Anton.
- Latinezko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 4etatik 8.30etara. Garbiñe.
- OHOk 8. mailako hizkuntza eta matematikako klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 41 72. Mari Jose.
- Etxetara joanda EGBko klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- Emakume esperientziaduna aste bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Dei egin 8etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.

Salerosketak

- Ia erabili barik dagoen Game Boy-a salgai Tetris jokuarekin. Prezioa: 11.000 PTA. Tfnoa: 71 47 70. Xabier.

- Nikon markako 35-70 mmko objetibo autofokusa salgai. Bi urte bakarrik ditu. Prezioa: 18.000 PTA. Dei egin ilunkeratan 77 04 44 tfnora. Karmelo.

- Salgai Taurus Tropicano 10-F berogailu-haizagailua.

- Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.

- Bulegoko hiru aulki gurpildun 5.000 PTA bakoitzak eta bulegoko beste lau aulki normalak 10.000 PTAan laurak.

- PCrako 2MB-ko RAM memoria (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.

- "Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina. Guzti hauetarako dei egin 77 06 90 tfnora. Kepa.

- Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gainera (enzimera) su elektrikoa oparian doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.

Denetarik

- Kontzesiño egunean pultsera bat galdu nuen, "Rosi" izenarekin. Topatu duenak dei egin dezala 79 18 80 tfnora.

- Santa Barbaran koker txakur bat galdu zitaidan, topatu baduzu dei egin tfnora honetara: 77 03 69. Arratsaldeko 7etatik 9etara.

- "Nati" izena jartzen duen pultsera bat galdu nuen hilaren 11n edo 12an. Topatu baduzu, dei egin mesedez 79 21 03 tfnora. Saritu egingo da. Nati Baskaran.

- Monterron parke aurrekaldean larruzko eskularruak galdu ziren. Norbaitek aurkitzen baditu deitu dezala telefono honetara: 79 29 50.

- Propaganda banatzen da Arrasaten, seriota-sunez eta garantia osoz. Tfnoa: 79 37 68.

- Belarritakoa galdu nuen Igualegorri Mediko eta Kuku denda artean. Bateron batek topatu badu, dei egin dezala 79 94 14 tfnora.

- Abenduaren 19an lentilak galdu zitzaizkidan kaxa eta guzti Kiroldegi inguruan. Aurkitu dituenak deitu dezala honako telefonora: 79 25 15. Maite Aperribai.

- Errege bezperan forro polar urdin bat galdu nuen Iturripen. *Joanes* izena jartzen du. Tfnoa: 79 58 99.

- Erretratuak, paisaiak etab. egiten dira oleoz. Oso ekonomikoak. Informaziorako jo Monterron pareko Uxarte goxodendara edo 79 83 76 tfnora. deitu.

- San Judas Tadeori bederatziruena. Jesusen bihotz santua, izan bedi maitatua, aintzatua eta babestua mundu guztian, orain eta beti. Jesusen bihotza, otoitz gure alde. San Judas, etsita daudenei laguntzen diezuna, otoitz gure alde. Egizu otoitz hau bederatziru egunez eta zortzigarrenean argitaratzea agindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede eta mirariak ikusiko dituzu. E.A.G.

- San Judas Tadeori bederatziruena. Jesusen bihotz santua, izan bedi maitatua, aintzatua eta babestua mundu guztian, orain eta beti. Jesusen bihotza, otoitz gure alde. San Judas, etsita daudenei laguntzen diezuna, otoitz gure alde. Egizu otoitz hau bederatziru egunez eta zortzigarrenean argitaratzea agindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede eta mirariak ikusiko dituzu. B. G.

Aste Gazte

Ikastaroak

- Euskal Dantza Ikastaroa, 10-14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua. Lore Gazteak taldearen eskutik. Ostegunetan, 6.30etatik 8etara. Otsailetik ekainera bitartean. Inskripzioak: Gazteentzako Informazio Bulegoan. Plaza mugatuak.

- "Ingurugiroarekiko inpaktu ikasketak eta informazio geografikoaren sistemak" Ikastaro teoriko-praktikoa. Bergarako UNE-Dek antolatua. Otsailak 6 -

apirilak 24, larunbatetan.

Lehiaketak

- Euskal Herriko Unibertsitateko Valle-Inclan Elkartearen I saria. Modalitateak: poesia, kontakizuna eta teatroa. Gai librea. 25.000 eta 60.000 PTA bitarteko sariak.

- Azeptitiko Instituturako anagrama aukeratzeko lehiaketa. Neurria: Din-A4 edo folio formatoa. Teknika librea. 25.000 PTAko saria. Epea: urtarrilak 20.

Eski-kanpainak

- Besaide Mendizale Elkarteak, batetik eta Diputazioak, bestetik, eskaintza zabal bat jartzen dute zuen esku, eskiatzea gustokoa duzuen horiek. Astebate nahiz aste osoko irteerak elurretara, prezio interesgarritan.

- Ikasle eta langabetuek 1000PTAko deskontuak eski ikastaroetan.

"Taldekako lanak, proiektu amankomunak, lagunak... guzti hori gaztetasunaren ondorio bat da".

**JOSE LUIS ZUMETA
EUSKAL PINTOREA**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

Z E R N A H I A G O ?

Maribel Zubiaga

Jostuna



- **Eskuz ala makinaz josten duzu?** Batzuk derri-gorrez eskuz jostekoak dira, baina gehienak makinaz josten ditut.
- **Zenbat urterekin ikasi zenuen josten?** 15 urte-ekin hasi nintzen.
- **Ondo josten ikastea zaila da?** Beno, ordu asko sartu behar da, horregatik derrigorrezkoa da jostea gustatzea.
- **Ze motatako erropak josten dituzu?** Emakumeen erropak bakarrik.
- **Bezero finkoak dituzu?** Bai, denak lagunak edo ezagunak dira.
- **Zer jostea gustatzen zaizu gehien?** Udako erropa batez ere. Josteko erraza, arina eta politagoa da.
- **Bizi izateko lain irabazten da?** Ez, lagungarri bakarrik.
- **Dendetako erropa baino garestiagoa da?** Bada, ez dakit. Oihal, botoi eta josteko modua- ren arabera dago.
- **Zenbat ordutz josten duzu egunean?** 8-9 gutxigorabehera. Lan asko badut, egun osoa.
- **Antiojuak erabiltzen dituzu?** Bai, baina ez josteko bakarrik, kalean ere bai.
- **Kolore bat?** Beltza eta berdea.
- **Eta oihal mota bat?** Lana eta zeta. Azkenaldi honetan, Hong-Kongetik ekarritako zetarekin erropa asko josi dut.
- **Bordaduak egiten badakizu?** Ez, lehen asko egiten ziren baina gero eta gutxiago.
- **Josteko makina ona duzu?** Bai, beharrezkoa da.
- **Gustoko lanbidea duzu?** Bai, niretzat jostea hobya da.
- **Asteburuetan jai ala lan?** Jai, norma bezala jai hartzen dut.
- **Erropan kalitatea zerk markatzen du?** Korteak, erremateak eta oihal motak.

BERTSOAK

Gure aiton-amonak

Benidorm-a

Ustekabean, aiton-amonai entzuten aldamenean, bidai eder bat jarri digute oso aukera onean. Hemen euria ta hotza daukagu ta han giro epelean, jan-edan eta garbitasunak lau izarreko hotelean.

Aiton-amonak pozik esaten joan behar dugu Benidorm-a, askotan ondo igarotzeko hori ez da derrigorra. Leku politez beteta dago gure Euskadi jatorra. etxeko onik ezin maitatu benetan gauza gogorra.

Benidorm-era goaz esanaz aiton-amonak elkarri, autobus baten eseri ziren berehala martxan jarri. Irriparezka eskua jaso agurtu nahi Euskal Herri, bidai jator bat egin zazue eta berriro etorri.

KEPA URAIN



IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPAETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Hau bai aukera!

BEHERAPENAK *Uziarte*

SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78 ARRASATE

Manolo Quevedo

Margo talde berriko partaide


Urte berriarekin batera, Arrasate margo taldea sortu da. Arrasaten dauden margolari denak batuko dituen talde honek Udalaren onospena jaso du. Barne egituran, lehendakaria dugu Manolo.

— Noiz eta zergatik sortu da margo talde hau?

— Batez ere pintore denak elkarte batean batzeko. Azken urte honetan buelta asko eman diogu proiektu honi eta urte berriarekin batera jaiola dela esan dezakegu. Pintoreen mundua oso indibidualista izan da, pintore bakoitzak bere etxean egin ditu kuadroak. Mundu itxia izan da berez, herriari ezer aportatu ez diona eta gure helburua guztiz kontrakoa da, herriaren aberastasun kulturalen lagundu nahi dugu.

— Barne egitura nola antolatuta duzue?

— Beno, denok hartuko dugu parte, hau da, pintore guztiek dute funtzio zehatza taldearen barruan. Oraindik taldean sartu gabe daudenek eta interesatuta dauden guztiek jakin beharko dute ardura zehatz bat izango dutela eta ez dela pintatzen



ikastea izango bakarrik. Gure helburua ez da kapitalizazioa, kontrakoa baizik: eginbeharrak, eskubideak eta hartu beharreko neurriak denon artean hartuko dira.

— Udalaren jarrera nolakoa izan da?

— Udalak onospena eman digu hasieratik eta egia esan, berak martxan jarritako proiektu baten jarraipena da, berak jarri baitzituen pintura klaseak. Oinarrizko tresnak lortzeko laguntza txiki bat ere eskatu diogu.

— Zeintzuk dira premiazko behar horiek?

— Batez ere lokal baten beharra dugu. Orain arte, astelehen eta asteartean Monterronen bildu izan gara pintura klaseetan.

Baina beti gure esku egongo den lokala behar dugu. Hori da Udalari egin diogun beste eskaera bat eta beharbada momentu honetan garrantzitsuen dena, guztion topagune izango den tokia.

— Ezagutzen duzue antzeko talderik beste herrietan?

— Bai, Deba, Bergara, Eibar eta beste herri askotan margo eskola antolatuta dute. Herri batzuetan denbora asko daramate martxan eta euren funtzionamendua ezagutzeko horietara bisita batzuk ere antolatu ditugu.

— Hasi berri den urteari begira, ze programa duzue?

— Hasteko, guztien lanekin erakusketa bat montatzea espero dugu. Bestetik, pintura arloan kolorea eta forma garatzea nahi dugu.

— Pintore interesatuek zer egin beharko dute?

— Gure ustez 15-20 pintore daude Arrasaten baina oraindik ez gaude denok elkarteak sartuta. Horregatik interesatuei bisitatzea etortzea eskatuko nieke, gure esperientzia eta funtzionamendua ezagutu eta ondoren erabakia hartzea.

Pintura erakusketa

Pasa den urtarrilaren 4tik eta datorren 24a bitartean Aretxabaletako Artano tabernan pintura erakusketa dago zabalik. Pauxi Bengoa, Luis Mesonero eta Mikel Arroiabe Aretxabaletako hiru margolari gaztek bederlatzi kuadro erakusten dituzte. "Bodegoia", "Kurtzebarri", "Korueta", "Pasaiaiko itsasadarra"...


Helduentzako musika ikastaroa

Arrasate Musikal akademiak pertsona helduentzako musika ikastaro berezia antolatu du. Denbora gutxi barru hasiko da eta interesatuok bilera batera gonbidatuta zaudete. Datorren hilaren 22an egingo da bilera hau, arratsaldeko 7etan eta akademiako aretoan.

Drogomenpekotasunen Prebentzioa

Drogomenpekotasunen Prebentziorako Udal Zerbitzuak antolatuta, drogaren prebentzioran lan-esparru bakoitzean zer egin daitekeen aztertzeko, bihar goizean herriko elkarte desberdinetako ordezkariak Udaletxean bilduko dira.

Elkarte desberdinetako ordezkarien bilerak, gaiaren atea irekitzeko, bi alde izango ditu: alde batetik, goizeko 10etan mahaingurua; bestetik, mahaingurua bukatu ondoren, lan-talde txikietan banatuta, elkarteetako ordezkariarentzat erreflexioak egin, ideiak eman edo proposamenak botatzeko txanda.



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23 -2. Ezk.
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 90

MITOLOGIA

Samartintxiki (I)

Pertsonai hauxe izan zen, garia ekarri, garia, artoa eta arbia ereiteko garaia aurkitu, eta hirurak landatu zituen lehen gizakia. Horrez gain, zerrak nola egin, burdina nola soldatu eta errotetan nolako ardatza jarri behar den ere aurkitu zuen. Guzti hau, basajauni iruzur eginez lortu zuen, ondorengo ipuinetan ageri den bezala:

Basajaunek garia eraiten zuten mendian, uzta ederrak jasoz. Gizakiek berriz ez zeukaten gari alerik eta irrikitan zeuden apurren bat lortzeko. Horrela, basajaunen lagun Samartintxiki, beraren kobazulora joan zen egun batez, aldean oinetako zabal-zabalak jantzita zituela. Gari-ale multzo handiak ikusi zituenean, hauek ea salto bakar batez nork gainditu apostu egin zien basajauni. Basajaunek errez lortu zuen, baina Samartintxiki multzo baten erdira jausi zen, abarkak gariz betez. Orduan, gainontzekoak agurtu eta mendian behera abiatu zen. Basajaunak konturatu eta aizkora bota zion, baina gizon zuhurra, urrun zegoen ordurako.

LIHER LARREA



Ludoteka, lehen zegoen toki berean baina berrituta, Sebero Altube plazan.

Euskaraz jolas egiteko, Ludoteka zabalik

Astehenean Ludotekako ateak irekiko direla eta, bertako arduradunek xehetasun guztien berri emanaz, prentsaurrekoa eskaini zuten atzo eguerdian. Behar bada, ordutegia eta bazkide-txartelaren inguruan esandakoak dira interesgarrienak. Ludoteka zenbat eta ze adinetako jendek erabiltzen duen zehatz mehatz jakin arte, ondoko ordutegi hau ezarri da: astean zehar 5etatik 6.30etara OHOKo 4. maila arteko umeen txanda; 6.30etatik 8etara, berriz, 5. mailatik 8. maila arteko umeena. Azkenik, larunbategian eskolaurrekoentzat zabalduko da Ludoteka. Orain arte Ludotekako ordutegian ez da kopuru edo adin mugarik

egon, baina aurten jarriko da "Ludotekak eskaini dezakeen zerbitzu kalitate duintasunez eskeintzea eta sarritan hartu dezakeen aparkamendu kutxua baztertu nahi direlako" AEDko arduradunen esanetan.

Bazkide-txartela

Ludotekaren erabilerari dagokionez, esan behar jolas egin nahi duten ume guztiek bazkide-txartela atera behar du dela bakoitza. Horrela, arduradunek umearen jarraipen zehatza egitea posible dela uste dute eta gainera ume bakoitzak Ludotekan dituen eskubideak, bete ahal izango direla horre-

la. Bazkide egiteko, baita familia bereko bi partaide diren kasuan ere, 4 hilabeteko 500 PTA kobratuko zaizkio ume bakoitzari eta bazkide-txartela betetzeko bi argazki eraman beharko dira.

OHO eta Eskolaurreko umeentzat eguneroko jolas dinamika, hilean behingo auzo-ludoteka zerbitzua, ikastetxetarako programa bereziak eta ume eta gurasoentzat informazio zabala dira Ludotekak eskaintzen dituen zerbitzuetariko batzuk. AEDko arduradunen esanetan, Ludotekak bi funtzio betetzen ditu: bata pedagogikoa eta ludikoa; bestea, euskararen normalkuntza eta erabilpenerako bultzada izatea.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

IZAGIRRE

barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

· ESAERA ZAHARRA ·

“Ardiak izan kulpa eta bildotsak paga”

· JEROGLIFIKOA ·

Artenbide

Ertenbide

Ortenbide

Urtenbide

Galduak gara!

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8	9					
10					11	
12						
	13				14	
15	16					17
18				19		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Kanpo. 3. Ketan ipini. 8. Zaldibar 92-93 Futbito Txapelketako ekipoa. 10. Irten. 11. *Iratiko* kontsonanteak. 12. Elkartasuna. 13. Uki. 14. Eusko Trenbideak. 15. Sakonune. 17. Txakur. 18. (Ald.) Kakotx. 19. Lehena hiru aldiz.

Bertikalak 1. Nahaste-borraste. 2. Umezain. 3. Oiloen kakarakak. 4. Nafarroako udala. 5. Ez eme. 6. Lehiaketa laburra. 7. (Ald.) Arduratsu. 9. Betirako. 16. Amerizioa.

· HOROSKOPOA ·

Aries Horrelakoa da bizitza; egin ezazu behar duzuna! (Ojo! Zorakeriarik ez)

Taurus Zu zaitut arantzarik gabeko arrosa, usaintsua, liraina, lerdena... denetan ederrera.

Gemini Eguneroko ohikeriaren atzapar maltzurretan erori ezkerro, robot baten bezala edo stress-ak jota bukatuko duzu.

Cancer Inoiz ez da berandu hizkuntza bat ikasteko.

Leo Ez egin kasurik zure amak esaten dituen txatxalakerixei.

Virgo Baina zer uste duzu? Oihaneko Tarzan zarela, edo?

Libra Zerbait izugarria, harrigarria, ikaragarria, kristona... gertatuko zaizu astebete barru. Zer izango ote da?

Scorpio Haurdun zaudela? Ba... bai, bai... Izarek hori diote! Baina???

Sagitarium Lasai egon, kriston suertea izango duzu hilabete barru. Itxaron!

Capricorn Arazo guztiak maitasunaren bidez konpontzen dira.

Aquarius Gehien maite duzun lagunak ezbehar bat izango du. Baina, tira!

Piscis Besteak izutzen dituzun arren, ez dakizula txorimalo konplexurik sartu.



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

• ELENA ARREGIREN GOMENDIOA •




Azken boladan ikusi dituen bi filme gomendatzen dizkie Elenak irakurleei. "Europa" pelikula daniarra da, II. Gerraren osteko Alemania deskribatzen duena, eta "ignosis sesioaren aitzakiaz baliaturik, filme ona eta ikusgarria egin dute, ohizkoak ez zaizkigun efektu bereziz egina. Pelikula ezberdina eta ona da". Bestalde, "Un Lugar en el Mundo" Donostiako zinemaldiko saritua gomendatuko lioke edozeini. "Gidoi ona, aktore onak... dena da ona pelikula horretan, baita lantalderen antolaketa era ere; teknikari eta aktoreak kooperatibean antolatuta egin dute filmea".

• PROGRAMAZIOA •



- 16 Larunbata**
4 Tertulixan
4.30 ATBketan
- 17 Igandea**
7.30 ATB Pub
8 Monterock
8.40 Mondragol
- 18 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30,9 Berriak.
9.30 Tertulixan.
10 Asteko zinea:
Lurralde txarrak
- 19 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30,9 Berriak.
9.30 ATB Pub
10 Asteko zinea:
Lurralde txarrak
- 20 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30,9 Berriak.
9.30 Pareak jokoan
10 Asteko zinea:
Lurralde txarrak
- 21 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Follow me
7.30 Dokumentala.
8.8.30,9 Berriak.
9.30 ATBketan.
10 Asteko zinea:
Lurralde txarrak
- 22 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Follow me
7.00 Dokumentala
8.8.30,9 Berriak.
9.30 Monterrok.
10 Asteko zinea:
Lurralde txarrak

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

Ez dago irtenbiderik.

JEROLIFIKOA

GURUZEGRAMA
Horizontaleak 1. Al. 3. Keatu. 8. Nabarros. 10. Atera. 11. Rt. 12. Batasuna. 13. Iku. 14. Et. 15. Sakam. 17. Or. 18. Amok. 19. Aaa.
Bertikal 1. Anabasa. 2. Tata. 3. Karakak. 4. Erasun. 5. Ar. 6. Torneoa. 7. Ustara. 9. Betiko. 16. Am.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK

77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

NAROKI

Urrezko bitxiak


NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47


NEGUKO HAMABOSTALDIA

Urtarrileko aldapa arinago izan
dakizun, aprobe txatu
ARRASATE KIROLAKeko
aukera ezinobea eta
gogoratu, hemen
KIROL BAKOITZARENTZAT
ERANTZUN BAT duzula.



**ARRASATE
KIROLAK**

Kontzezino Kalea.8 - Tel 794
ARRASATE-MONDRAGO



Neguko Hamabostaldia



KIROL JANTZIETAN KALITATEA, PREZIORIK ONENEAN

Araba Etorbidea, 18 Tfnoa: 77 14 86 ARRASATE

